




Elisabeth Eidenbenz,  
amatasun etxearen  
sortzailea.  
Egun 96 urte ditu,  
eta berarekin  
izan da  
Josu Chueca.

## ELNAKO AMATASUN ETXEA

Gerra betean  
bakean jaiotzeko aterpea

### Alex Gibelalde, Google:

«Jendeak euskara  
eskatzen digu baina  
gero ez du  
erabiltzen»

### Xabier Mendiguren:

«Drama da norberak  
talenturik ez izan  
eta ez ohartzea»

### Jose Enrike Urrutia Capeau

Assilah-ko eroa  
ipuin liburuaz

### EAEko lurralde antolamendua

Hurrengo  
hamarkadarako  
zirriborroak  
azpiegitura handiak  
sustatzen ditu

### Pablo Sotés, NUP:


«Boloniako eredua  
malgua da eta  
euskara sartzeko  
aukera handiagoa  
dago»



**argia**



[www.argia.com/multimedia](http://www.argia.com/multimedia)

*bertsio digitaletik harago  
argi berri bat sarean*




#### Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.





#### Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.





#### Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




#### Ekitaldiak

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



#### Film laburrak

Euskarazko film laburren hautaketa.



#### Dokumentalak

Dokumental berri bat bi astean behin. Euskaraz edo euskarazko azpitoluekin.



Azaleko argazkia:

ELISABETH

EIDENBENZ-EN

FUNTSA

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera ➤



**gizarte**  
**kutxa**



• **NON ZER** •

2010eko urriaren 3a, 2.246. zenbakia

## Deabruaren abokatua

- **Jakoba Errekondo:** «Utikan lixtomari, izorratzaile, diruaren soldaduak!». ARITZ GALARRAGA / 4

## Asteko gaia

- **Elnako amatasun etxea eta Elisabeth Eidenbenz.** Bizitza helburu, gorroto garaietan. JOSU CHUECA / 5

## Pertsonaia

- **Xabier Mendiguren:** «Euskal Herrian ez dago argitaratu gabe geratzen den lan onik». UXUE ALBERDI / 10

## Gaiak

- **Alex Gibelalde, Google:** «Ez bagenu etengabe aktualizazioak sartu, aurre hartuko ziguketen honezkero». IRATI SARASUA / 16

## Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Bi taza, my friend. JOSÉ LUIS PADRÓN / 20
- **Hondoko itsasoa.** KOLDO ALDALUR / 21
- **Hiruko txikian** Argi mintzo. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Kubako turista akzidentala.** ROSA MARIA MARTIN SABARIS / 22
- **Txandan** Tximeletak. CASTILLO SUAREZ / 22
- **Zirtak** Horoskopoa. ANGEL ERRO / 23
- **Bertso berriak** 2-xabi-xa. XABI PAYA / 24

## Erdiko kaiera

- **Jose Enrike Urrutia Capeau:** «Uste nuena baino mundu konplexuagoa da islamdarrena». MIEL A. ELUSTONDO / 25
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 29
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA, MIKEL GARCIA / 33
- **Ihesi Bastida (Araba):** Unetxoak. PATXI ZUBIZARRETA / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

## Termometroa

- **Lurralde antolamendua.** Ureztatu liteke baratzea zementuarekin? URKO APAOLAZA / 41
- **Pablo Sotés, NUPEko Hizkuntza Plangintza Arloko zuzendaria:** «Erraztasun gehiagorekin, euskarazko matrikulazioa asko handitu da». GONTZAL AGOTE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Lapiroren kantzak tripak nahasi dizkio Paul Biyari. PELLO ZUBIRIA / 48

## Azkena

- **Desgraciada España.** JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL / 50



## *“Utikan lixtomari, izorratzaile, diruaren soldaduak!”*

**Jakoba Errekondo I**  
**Hankabiko entziklopedia**

666 artikulutik gora, mende laurden irratian  
aholkulari eta badu oraindik zeresana.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

### **Badut geranio bat etxean...**

Zorionak! Hire edadeko asko ez dek geranioa ezagutzeko gai izango. Geranioa, hala ere, lagun ona izateko errazegia dek: kanpoan eguzkitan jarri eta egunero lurra busti.

### **Ez diot hitz egin behar, tarteka laztandu?**

Hitz egiok heure buruari, laztan hadi herorri... Gor eta mutu haiz harentzat. Begirazak eta erakutsiko dik, maitatzen-maitatua izaten. Asmatzen badek, muturrean ere igarriko zaik.

### **Psikologo merkeagorik!**

Bai horixe! Gizaki arreba-anaia zakurra beza-la tratatzera jarrita gaude eta gainontzeko izaki guztiak jo eta zanpatzera. Landareak geu adina inteligente edo gehiago direla jabetzeaz asko ikasiko dugu.

### **Arrazoi duzu: gu joango gara, baina landareek hemen jarraituko dute!**

Dudipe! Landareek 400 milioi urte baino gehiago daramate Lurreko gora-beheretara egokitzen. Gizakiak bi eskas, eta gure espezieak 200.000 urte inguru eta andere eta jabe garela uste dugu... Gure espezieaz beste egin arteko onik ez dugu. Algaraka hartuko dute landareek gure desagerpenaren berria.

### **Galbidean gaudela ez konturatzea ere!**

Ez motel! Ederki asko jabetzen gaituk zertan ari garen. Landareek bere estrategiak sortu eta garatzeko espeziean pentsatzen ditek. Gure arazoa espeziean, herrian, pentsatu beharrean bakoitzak bere interesetan pentsatzea da.

### **Zilborraren diktadura, *mon ami*.**

Adibidez, Usurbilen, atez atekoarekin ikaragarriko eskola sortu dek, iraunkortasunaren hiru alorrak landuz: gizartea, ekologia eta ekonomia. Eta munduan eredu izan daitekeen sustatu beharrean, zertan ari dituk gure agintariak? Zaborra erretzeko negozioa antolatzen. Hori ez dik ezjakinak egiten, gaiztoak baizik. Baina lasai, historiak bakoitza bere gurdira uztartzen du.

### **Begetalago bilakatuko bagina?**

Ez, alajaina! Landareak mundu honen oinarria dira, etengabeko ikasgai. Zoratu gabe, ordea. Emakumeok eta gizasemeok gara, haiei esker, Lurreko ekosistemaren gailurra, eromeneraino interesgarriak.

### **Egia, lorontzi izatea ez dugu maite.**

Ur aparretan agertzea oso geurea dugu. Dotoreena, nabarmenena, deigarriena, apainena, perfumatuena azaltzea, etengabe besteak erakarri nahi hori, animalia da erabat. Zikinena.

### **Gauza garbirik bada, asfaltoa.**

Asfaltoa! Jan egingo gaitu. Geure simaurretan itoko gara. Denon ardura da eta, neure artean, neure buruak auzo lotsa sortzen dit.

### **Progresoa, badakizu.**

Progreso honek, behingoz, progresoa txarra dela konturatzeko balioko balu, gaitzerdi! Utikan progresistak! Axkar, lixtomari, motx, izorratzaile, diruaren soldaduak! ■

Elnako amatasun etxea eta Elisabeth Eidenbenz

# Bizitza helburu, gorroto garaietan

1939 eta 1944 artean 597 haur jaio ziren  
Elnako amaetxean, Perpinyàtik gertu.

Gerrak harrapatutako emakume eta  
haurrei laguntzeko sortu zuen Elisabeth  
Eidenbenz-ek. Haur horien salbatzailea  
bizi da, eta bere ahotik entzun dugu nola  
gertatu zen historia hura.

JOSU CHUECA

Argazkiak: E. Eidenbenz-en funtsa

ESPAINIAKO GERRA ZIBILAK berrikuntza tamalgarri hainbat ekarri zituen gudu esparru garaikidera. Estrainako aldiz, gerra orokorren ideia nagusitu zen. Armadetan izandako biktimez gain, kalte ugari sortu zituen gizarte zibilean ere. “Barne gerra” izanik —ez beste estatuen aurka—, hasieratik biktima ugari sortu zuen frontearen borrokan ez zeuden beste lekuetan ere. Atzeguardian babesten zirenek errepresioaren ondorio zuzenak jasan zituzten behin eta berriro. Irun izan zen horren adibide tristea. 1936an herri osoak alde egin behar izan zuen frankisten aurrerakada zela medio. Irunen, nahiz eta miliziano-rik ez geratu, inor ez zen salbatu: emakumeek, mutikoek eta neskek ere utzi behar izan zuten mugako hiria.

Hori ikusita, hainbat lekutatik, Suitzatik esate baterako, giza laguntza hasi ziren bidaltzen Espainiara, gerra modu horrek kolpatzen zituen herritarrak laguntzeko. Suitzan gorpuztu zen *Communauté de travail pour les enfants d'Espagne* elkarteak. Bi aldeetan lan egiteko prest bazegoen ere, frankistek ez zuten horrelako laguntzarik onartu eta alde errepublikanoan bakarrik aritu zen 1937 eta 1939 artean.

Ongi oroitzen da oraindik, 96 urte dituen arren, orduan bolondres jardun zen Elisabeth Eidenbenz (Wila, Suitza, 1913): “Oporretan nengoen, eta Espainiara joateko deitu zidaten,



**Elisabeth Eidenbenz**  
haurra besoetan  
duela. Azkenaldian  
hainbat  
kondekorazio eman  
izan diote, baina  
orain arte ahazturik  
egon da.

umeei laguntza ematera. Ni ez nintzen erizain, andereño baizik, baina baietz esan nien. Bi urte luze eman nituen, hainbat herritan, umeentzako kolonietan laguntzaile. Burjasoten (Valentziatik gertu) genuen gure egoitza baina Madrilera joaten ginen umeak ekartzera, baita beste herri txikietara ere”. Gerraren ankerra ere oso gogoan du: “Bonbardaketak askotan jasan genituen, baina nik ez nuen beldurrik izan. Gurekin zeuden errefuxiatuei nolabaiteko lasaitasuna emateko-edo izango zen...”.

## Karl Ketterer-en lehen abentura

Gerraren amaierarekin, laguntza batzordeak bukatutzat jo zuen bere lana Espainian eta Suitzara jo zuten 1939ko lehen asteetan.



Hala ere, hainbat ekintzailek barru-barruan zeramaten galtzaileekiko erruki eta elkartasun nahia, eta atzera itzuli ziren, Perpinyà inguruan irekitzen ari ziren “Harrera Zelaie-tako” errefuxiatuei laguntzeko asmoz. Horrela, Umeen Aldeko Laguntza Elkartean ibilitako Karl Ketterer-ek kontzentrazio zelaia zeuden tokira jo zuen 1939ko otsai-lean. Berehala konturatu zen giza laguntza oraindik oso beharrezkoa zela. Gizonezkoek gain, umeak eta emakumeak egoera penagarrian zeuden, txar-rantxen artean. Izan ere, Frantziako agintariek antolatu zituzten “aterpeak” ez ziren nahiko guztiak jasotzeko eta hainbat kasutan, familiako kideak elkarrekin jarraitzeko asmoz, kontzentrazio zelaietan sartu ziren.

Horietan bizi baldintzak desegokiak ziren eta gaixoen zatirik handiena Haras-ko zelai-ospitalera jende zegoen. Hori jakinda, hara joandako laguntzaile suitzarrak erreibindikatzeko hasi ziren leku egokiagoak behar zirela, batez ere umeentzat eta esperoan zeuden emakumeentzat. Jakina, agintari frantziarrek zuten politikaren barruan —errefuxiatuak lehenbailehen Espainiaratzea ala Frantziatik beste lurraldeetara bidaltzea— ez zegoen aukerarik horrelako ekimenei heltzeko. Horregatik, Karl Kettererrek eta beste suitzarrek, mehatxua egin zuten kontzentrazio zelaietako egoera salatzeko kanpaina hastearekin, eta horrela lortu zuten behin behineko baimena amatasun etxea abiarazteko.

1939ko martxoaren erdialdean, Brouillako herrixkan bazterrera utzia zegoen jauretxe batean, emakume errefuxiatuen amatasun etxea ireki zuten. Etxetzarra zenez, atarian bertan prestatu zuten erditzeko gela eta jau-regiko beste gelatan hogeitahiru zituzten ama berrientzako. Egun batetik bestera, Harasko zelaitik zortzi emakume iritsi ziren

**“Izan ziren baldintza zail  
horietan aurrera  
eramandako haurdinaldien  
ondorioz, jaio eta berehala  
hil ziren haurrak”**

**ELISABETH EIDENBENZ**

erditzera. Karl Kettererrek eta bere lagunek berehalakoan antzeman zuten ekimen hura beharrezkoa bezain premiazkoa zela. Aterpe berri horrekin, asmatu ez ezik, erantzun egokia eman behar zieten inguruan zeuden emakume errefuxiatuei. Hori zela eta, Kettererrek Zurichera jo zuen eskarmentu handiko laguntzaileak eskatzeko, ahal izanez gero gaztelaraz moldatzen zirenak.

Elisabeth Eidenbenz zen horietako bat eta Suitzara ailegatu berria bazen ere, itzultzeko eskatu ziotenean berriro atzera egin zuen, Espainiako gerraren biktimekiko elkartasuna berpiztu zitzaion nonbait. Brouillara iritsi zenean, Elisabethek hartu zuen amatasun etxean lanean ari zen taldea zuzentzeko ardura. Bere ondoan zituen Suitzatik heldutako Betti Hagler erizaina eta handik gertu dagoen Bages-eko emagin Gourdiolen anderea. Elisabethek maistra ikasketak zituen eginak eta ginekologiak gutxi zekien. Jardunaren poderioz —lehenik Brouillan eta geroxeago Elnan— ikasi zuen bere lagunaren profesioa. Izan ere, Brouillako amatasun etxea ireki bezain laster, lehen umea munduratzeko lagundu zuten hiruen artean: Pepita. Horren ostean beste 32 haur sortu ziren hurrengo hilabeteetan. Harastik ez ezik, inguruko beste kontzentrazio zelaietatik hasi ziren joaten emakumeak, eta erditzeak eguneroko kontu bihurtu ziren. Umea izan ondoren, hilabete pare bat egoten ziren bertan, beste emakumeen beharrak agintzen zuen arte.

### **Brouillatik Elnara**

Baina gauzak ustekabearen okertu ziren eta lehen amatasun etxe hori utzi egin behar izan zuten. Alde batetik, 1939ko irailean II. Mundu Gerra hasi izanak, eragotzi egin zuen Suitzatik kamioien bitartez eramaten zen laguntza normaltasunez iristea. Bestetik, urrun bizi zen jauretxeko nagusiak jakin zue-



Elisabeth Eidenbenzek amatasun etxeko argazki originalen albumak kontserbatu ditu. Ezker-eskuin: ama haur jaio berriarekin Elnan. Amatasun etxeko langile batek egindako egurrezko seaskak. Emakume taldea beren hurrekin eta amatasun etxeko langileekin. Elnako amatasun etxearen garaiko hartako irudia. Brouillako amatasun etxea uztera derrigortuta aurkitu zirenean, Elisabethek jarri zuen martxan Elnakoa, Bardou familiak erdi utzirik zuen jauregi horretan, alokairu baten truke.

nean zertarako erabiltzen ari ziren bere etxea, alde egiteko agindu zien. Aitzitik, antzeko etxe baten behar gero eta larriagoa sumatzen zuten Elisabethek eta bere lankideek. Izan ere, Espainiatik alde egindako behin betiko errefuxiatuen kopurua handia zen oraindik, eta hori gutxi balitz, beste iheslari multzo batzuk hasi ziren iristen 1939 eta 1940 artean: ipar Europatik alde egindako erbesteratuak eta ihesean zebiltzan judutarrak —Frantziako legediak *indesirable* jotzen zituenak—. Berritro bete ziren Espainiako errepublikanoentzat alde z aurretik prestatuko esparruak. Behin

behineko eraikuntzak betiko bihurtu ziren, eta zelai berri gehiago ireki zituzten. Elnatik eta Brouillatik gertuen Rivesaltes-ko kontzentrazio zelaia zegoen; adreiluz eta porlanez eratu zuten denbora luzez irauteko, eta gizonak giltzapetzeaz gain, umeek eta emakumeek ere egonaldi luzeak egiten zituzten.

Gauzak horrela, Brouillako amatasun etxea halabeharrez utzi ostean, Elisabethek beste amatasun etxea eratzeari ekin zion. Elnako azokara egindako joan etorrietan, ikusia zuen Bardou familiak nahiko abandonaturik zuen jauretxea. Oso hondatuta zegoen: itokinak nonahi, leihoak erabat txikituta... Baina etxe handia zen, eta premia larria zegoen. Alokairuan hartu zuten 1939ko urrian. Beraz, amatasun etxe bat itxi eta hilabete eskasera abiarazi zuten bigarrena. Lehendabiziko saioa oso baliagarria izan zitzairen, baina Elnakoa beste gauza bat zen, itzela izan zen.

II. Mundu Gerra hasi besterik ez zen egin eta hilabete gutxiren buruan, 1940ko ekainean, naziak erabat nagusitu ziren, ez bakarrik Europako erdialdean, baita Frantzia ere. Jakina denez, Txekoslovakiarekin eta Austriarekin hasitako inbasioa Pirinioetako mugetaraino hedatu zen eta horrekin batera, Vichyko agintariek Hitlerren aldeko kolaborazionismoa itsua agertu zuten. 1940ko porrotaren ostean, Fran-

**BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2010**

**urriaren 10ean, MUNGIAKO OLALDE ARETOAN 17:30ean**

**OIHANA BARTRA  
XABIER ENBEITA  
JULEN EREZUMA  
ITSASO PAIA  
ANDER ELORTEGI  
JULEN SOLOLUZE**

Gai-emolea:  
**MAITE BERRIOZABAL**

LAGUNTZAILEA **argia**

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2010 logoak: BFA DFB, bbk, MUNGIA UDALA



tziako bost eskualdetatik hiru naziek zuzenean kudeatu zituzten. Ipar Katalunia “eremu librean” geratu zen 1942ko azarora arte, hau da, Frantzia osoa naziek bereganatu zuten arte. Berriri Gurs, Rivesaltes, Saint Cyprien eta Le Vernet, jendez bete ziren eta hara bideratu zituen bere eginahalak Elisabethek: “Batzutan gu joaten ginen kontzentrazio zelaietara emakumeen bila, baina bestetan kamioiez iristen zitzaizkigun Elnaraino”. Lehen Espainiatik alde egindakoak bezala hasi ziren iristen amatasun etxera judutarrak, ijitoak eta komunistak. Beraz Espainiako errepublikanoei laguntzeko sortutako ekimenak esparru askoz zabalagoa hartu zuen 1940tik aurrera.

### Munduratzekak gorroto girotik at

Haustura itzela, desberdintasun handia, sumatzen zuten kontzentrazio esparruetatik iritsitako andre horiek. Ohiko gabeziak, gaitasunak, izurriteak atzean lagata, Elnan Elisabethen eta bere taldearen babesa eta berotasuna zituzten. Zoriturrez, pagotxa horrek ez zuen asko irauten. Erditutakoan, hilabete batzuk igaro ostean kontzentrazio zelaietara itzuli behar izaten zuten. Baina Elnan egon zitezkeen bizpahiru hilabeteko tartean, umeak modu egokian munduratzek gain, gerrak sorrarazten duen gorroto girotik at, giza laguntza beroa jasotzen zuten.

Elnan hainbat erizain zituen Elisabethek bere kargu eta etxeko lanetarako hiruzpalau gizon. Bata erosketetaz eta garraioaz ardurtzen zen bitartean, besteek jauretxe inguruan egindako baratzea lantzen zuten, ama-umeak elikatzeko oso baliotsu zutena. Laugarrena, zurgina, etxeko lanetako arduraduna zen. Berak prestatu zituen jaio berrien sehaskak eta antzeko beste altzariak. Lan taldean, Suitzatik etorritako erizain boluntarioez gain, erditzeaz zeuden edo jadanik ama izan zirenen emakumeek ere parte hartzen zuten, garbiketa eta sukalde lanak aurrera eramateko. Sostengu ekonomikoari dagokionez, Suitzako

**Ezker-eskuin:**  
**Elisabeth Eidenbenz**  
**Zurich-en egin genion**  
**bisitan. Rivesaltesko**  
**kontzentrazio**  
**zelaietako hondarrak;**  
**adreibuz eta porlanez**  
**eraiki zituzten hango**  
**etxolak. Elnako**  
**amatasun etxea izan**  
**zena gaur egun;**  
**Udalak erosi du eta**  
**memoria**  
**historikoarekin**  
**zerikusia duen**  
**zentroa osatzen ari**  
**dira. Jadanik hainbat**  
**erakusketa antolatu**  
**dute eraikinaren**  
**barruan.**

agintariek dirulaguntza oro ukatu zioten amatasun etxeari. Ondorioz, hainbat erakunderen bitartez eskuratu zuen Elisabethek beharrezko diru kopurua. Pixkanaka, Elnako amatasun etxearen harrera eta arrakasta handituz joan zen. Vichyko gobernuak agindu zuen aroan –1940 eta 1942 artean–, guztiz beteta egon zen amatasun etxea; bataz beste hilean 25 erditze lagundu zituzten Elnako emaginek. 1943ko maiatzean, bostehungarren jaiotza gertatu zen, eta urte bete beranduago, alemaniarren aginduz etxea itxi behar izan zuten, hiru sortze baino ez ziren falta seiehungarreneira iristeko. Gehitzen badizkiogu hil zirenak, aise gaingitzen dute zenbaki mardul hori han jaiotakoek. Elisabethek berak aitortu digunez, izan ziren “baldintza zail horietan aurrera eramandako haurdunaldien ondorioz, jaiota eta berehala hil ziren haurrak”.

Heriotzaren eta bizitzaren arteko lehia hori ez zen mugatu Elnako amatasun etxera. Esaterako, Banyulsen haurtzaindegia jarri zuten martxan, Elnatik kanpo egon behar zuten ume koxkorrentzako. Bestalde, zuzenean edo zeharka, Elisabethek eta bere taldekoek izugarritzko laguntza eman zuten kontzentrazio zelaietan 1944. urtera arte. Elnatik igarotako hainbat erizain kontzentrazio esparrutara joan ziren bertan lan egitera: Gursekora Elisabeth Kasser joan zen 1940ko abenduan, eta Rivesalteskoan Friedel Reiter aritu zen, 1941eko azarotik aurrera laguntza taldeak gidatzen. Era berean, Elnako etxea erabakigarria izan zen dirua eta elikagaiak inguruko kontzentrazio zelaietara bideratzeko. Elnako kamionetari Rossinante deitzen zioten eta ospetsu bihurtu zen Saint Cyprienara, Argelesera eta Rivesaltesera elikagai ugari garraiatu zituelako, han zeuden errefuxiatuen mesedetan.

### Gestapokoen beldur

Hala ere gauzak erabat okertu ziren 1942az geroztik. Naziek “Behin betiko Ebazpena” jarri zuten martxan, Deuseztatze Esparru-

## Nola deskubritu zuen historia hau Guy Ecksteinek

1941eko urriaren 10ean jaio zen, Elnako amatasun etxean, berez Anberesen (Belgika) jaio behar lukeen haurra: Guy Eckstein. Gurasoak, poloniar jatorriko judutarrak, naziengandik ihesi joan ziren Europa hegoalderantz. Perpinyàn zeudela, ama erditzeko zorian zen eta hango ospitale batera joanez gero atxilotzeko arriskua zutenez —atzeritarak. eta judutarrak zirelako—, ecksteindarrak Elnako “espainiarrentzako amatasun etxera” bideratu zituen norbaitek.

Mende erdi beranduago, 1991n sortze lekua ezagutu nahian Perpinyàra joan zenean, Guyk izen eta abizen bat ikusi zuen, lekuko bezala, bere jaiotze agirian: Elisabeth

Eidenbenz. Amarengandik “andereño Isabel” bezala oroitzen zuen bera. Austriako Rekawinkelen aurkitu zuen andereño mitikoa. Telefonoz deitu zionean, Elisabethek horrela erantzun zion: “Bai, gogoan zaitut, Guy izena hartu zuen bakarra zu izan zinen”.

Geroztik, bidaide izan dira gertaera eder hori berreskuratzeko. Elisabethek eskuzabal eman ditu testigantza, argazkiak, eskutitzak... egindakoari garrantzia kenduz. “Gizaki bat salbatzen duenak, gizateria osoa salbatzen du” dio Talmudeko leloak, bada, erizain horiek seiehun aldiz egin zuten hura. Guyk esker ona azaltzen dio egun “andereño Isabeli”, arreta, mai-tasun eta begirunez.

J. CHUECA



tan amaitzen zen politika genozida hura. Deportazioek eragin zuzena izan zuten aipatutako kontzentrazio esparruetan eta Elnan beldurrez jarraitu zuten prozesu hura, Gestapo-koak edo Wermachtekoak errefuxiatuen bila noiz joango. Batzutan, Elisabethek eta bere taldekoek ezin izaten zieten naziei aurre egin eta hainbat atxiloteta gertatu ziren. Bestalde, Suitzako agintariek eman zieten babesa hutsaren hurrengoia izan zen, legediaren errespetuaren aitzakiaz, neutraltasunari lehentasuna eman ziotelako. Dena den inolako bermerik edo laguntza ofizialik gabe ere, aurrera jarraitu zuten, harik eta 1944ko Pazko Egunean, alemaniarrek hiru eguneko epea eman zieten arte handik alde egiteko. Legalitatea gailendu zen justizia eta gizateriaren gainetik, eta ez zuen beste irtenbiderik izan andereño suitzarrak. Aukera izan zuen, dena den, horrelako lanekin jarraitze-

**Guy Eckstein Elnako amatasun etxean jaio zen eta Elisabeth akordatzeko da bere izenaz. Goiko irudian, berrikerian ari dira emakumea elkarrizketatu genuen ulean. Beheran Stein ageri da, haurra zela, amatasun etxean.**

Elnako jauretxea hondatuz joan ahala, Elisabeth Eidenbenzek eta bera bezalako gazte idealistek 1939tik 1944ra indarrean jarritako ekimena ahanzturaren zokoa hondoratu zen. Elisabethek gorde izan dituen argazkiak, Elisabethek bildutako umeek egindako marrazkiak, Friedelek idatziriko koadernoak edo bertan jaiotako umeen oroitzapen bakan bezain lanbrotsuak izan dira orduko testigantza apurrak, orain gutxi arte erabat ezezagunak. Egun, Frantziako Gobernua ijitoen eta etorkinen aurka neurri baztertzailer eta errepresiboak bultzatzen ari denean, egoki da oso gogoratzea testigantza horiek guztiak. Eta aldarrikatzea Elisabethek esan ziguna: “Egin behar genuena egin genuen... legeen gainetik gizakia dagoelako”. ■






Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

## Xabier Mendiguren

# «Euskal Herrian ez dago argitaratu gabe geratzen den lan onik»

Galbaheari begira egoten dira garaia eta lastoa.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

**Futbolaria izan nahi zenuen umetan, baina talentua falta omen zitzaizun. Nola esaten zaio idazle bati talentua falta zaiola?**

Gaur, ikastetxeetara joaten naizenean, Txiki Begiristain eta Patxi Zubizarreta eskola-kide nituela kontatu ohi dut eta, egia esan, Aitor Begiristainekin futbolekin aritu izana ohorea da, baina baita umiltasun lezio handia ere, haren dohainak izugarritzakoak baitziren. Baina galderari helduz, inori ezin zaio zuzenean esan “ez daukazu talenturik”; horretaz norbera jabetu behar da. Eta drama da norberak talenturik ez izan eta ez ohartzea. Horiena bai izan daitekeela problema. Editoreak, lan batek hainbat gabezia baldin baditu, gabezia horiez jabetzen lagundu behar dio idazleari, lanak gabezia horiek dituela garbi baldin badu behintzat. Baina idazleak jabetu behar du.

**Zuk noiz deskubritu zenuen irakurketa?**

Umetan, gure etxean ez zegoen liburu askorik. 14-15 urterekin hasi nintzen asko eta sistematikoki irakurtzen. Bitxia izan zen gauza bat: ordura arte, nire jardura artistiko ezaguna edo inguruan txalotzen zidatena marrazketa zen. Bai, asko marrazten nuen, eta esku on xamarra neukan. Kontuak kontu, 14-15 urtetatik aurrera liburuek eta letrek gero eta pisu eta inportantzia handiagoa hartu zuten nigan eta, aldi berean eta modu paraleloan, marrazkietarako interesa galdu nuen. 14-18 urte bitartean gertatu zitzaizdan gurutzaketa hori, eta 18 urtetik aurrera ez dut ia marrazkierik egin. Gogoratzen naiz 15 urte nituela

### Nortasun agiria

Xabier Mendiguren Elizegi 1964an jaio zen Beasainen. Honela aurkeztu zuen bere burua *Paperjalearen dieta* izeneko blogean: “Filologoa naiz formazioz, editorea ofizioz, irakurlea afizioz, idazlea bokazioz, berrietsua bizioz, euskalduna bedekazioz edo madarikazioz”. 1988tik da Elkar argitaletxeko editore eta, idazle gisa, 50 bat titulu ditu argitaratuak: nobelak, narratioak, haur eta gazteentzako kontakizunak, antzerkiak...

García Márquez-en *Cien años de soledad* irakurri nuela, eta heroinomanoek kontatzen dute lehenengo txutea esperientzia errepikaezina dela, ba, halako zerbait izan zen. 16 urte nituela Hego Amerikako idazle batzuekin zaletu nintzen. Aipatu dut García Márquez, baina baita ere Cortazarren *Rayuela*, Borges en ipuinak... Mundu berri bat zabaltzen zitzaidala sentitu nuen eta nik, neure xumea, mundutxo horretan pauso batzuk eman ote nitzakeen galdetzen nion neure buruari.

**1988tik zara Elkar argitaletxeko editore. Gertutik jarraitu duzu euskal literaturgintza. Zer aipatuko zenuke gure letren eboluzioaz? Nondik gatoz? Norantz goaz?**

Oro har, nik uste, erresistentziatzako kultura batetik gatozela, biziraupenezko kultura





**"Nahiago nuke beste batzuk ere gure paretsu balebiltza, baina parekidetasuna lortzeko modua ezin da izan guk nahita gauzak gaizki egitea"**

batetik, non euskara guztiz marjinatua eta baztertua, hiltzorian sentitzen zen. Dena eman behar zitzaion euskarari, hutsuneak bete behar ziren eta norberak ahal zuena egin behar zuen, eta horrek boluntarismoa, militantismoa eta hainbat -ismo ekarri zituen. Ni editore sartu nintzenerako hori aldatzen hasia zegoen, baina hortik gentozen argi eta garbi. Bilakaera profesionaltasunerantz izan da. Gero eta jende gehiago dago kulturgintzatik bizi dena, idazleak inor baino gutxiago, baina gero eta jende gehiago dago, oro har. Aldi berean, egon da espezia-

lizazio bat ere; lehen bat izan zitekeen Ikastolen Elkarteko lehendakari, herrian idazten ziren panfletoen itzultzaile eta bertso-txapelketetako gai-jartzaile edo epaimahaiko. Jendeak, zorionez, bere esparrua bilatu du norbere zaletasunen eta gaitasunen arabera. Herrigintzaren zentzua asko apaldu da, eta gero eta gehiago begiratzen dio bakoitzak bere buruari eta bere egoerari, bere garapenari edo bere proiektioari. Tristeia irudi dezake, baina, neurri handi batean, ezinbestekoa ere bazen.

**Eta maila literario puruan, zein izan da eboluzioa?**

Oro har, XX. mendeko euskal literaturaren historia modernizatu nahi eta beharraren historia da. Batetik, Europako mugimenduak, abangoardiak gurera ekarri nahi ziren: ekarri, txertatu, imitatu, geu ere puntan egon eta ez atzeratuta, gure gaitzetako bat izan delako beti kultura atzeratua izatea. 1950etik 1975era bitartean izugarritzko aurrerapausoak egin ziren, eta nabarmentzekoak dira Txillardegia, Aresti, Saizarbitoria eta beste hainbat. Esan daiteke 80ra arte-edo pauso oso azkarrak egin zirela. Geroztik, zorrak kitatu ditugula esango nuke, egin ditugula Europako abangoardiek egin dituzten gauzak, eta orain lasaia idatzi dezakegula interesatzen zaigunari buruz. 80tik aurrera aniztasunaren bidea ireki zen: aniztasuna estiloetan, gaietan, ahotsetan... Eta beste berrikuntza garrantzitsu bat, batez ere azken hamar urteotan oso nabarmena izan dena, emakumezko idazleen ugaritzea izan da. Gaur egun, adin batetik behera, ez bakarrik gizonezkoak adina, gizonezkoak baino gehiago dira eta, oro har, interesgarriagoak ere bai.

**Idazleena ego handiko mundua da; editoreok nola kudeatzen dituzue ego horiek?**

Ulerkortasunez eta pazientziaz. Idazleen artean denetik dago: nik, urtetan, talentu oso handikoak eta talentu ertainekoak eza-gutu ditut eta, aldi berean –eta ez du talentuarekin zerikusirik, konbinazio guztiak baitira posible–, oso pertsona apalak eta umilak ere eza-gutu ditut, nahiz eta oso inteligenteak izan eta nahiz eta bere balioaren berri ondo jakin. Beste batzuek, ordea, autoestimua eta aitortzaren behar handia dute. Bakoitzak bere izaera du eta ezin da inor gaitzetsi; azken batean, idazlearen lana da balio duena. Eta idazleak asko ematen du, sortzaileek oro har asko ematen dute: beren denbora eta ahalegina eta buruaren zati handi bat eskaintzen diote sorkuntzari, eta horren ordaina eskasa da ekonomikoki. Batzuek ordain soziala hain eskasa ez izatea nahi lukete, eta bidezkoa da hala sentitzea.

## Ez duzu gaizki epaitzeko beldurrik izaten?

Beldurrik ez, kezka bai. Alde horretatik esango nuke editoreak izan behar duela, batetik, umila. Guk egiten dugun guztia testu bat hobetzeko izango da beti, eta gure ekarpena zein den ez da inoiz agerian aterako, eta hala behar du, gainera. Beste idazle baten testu baten mesedetarako lan egin behar du norberak. Idazle horren zerbitzura zaudela jakin behar duzu. Baina, aldi berean, editoreak eduki behar du bere buruan sinestea eta segurtasuna “ez” esateko, “hau aldatu egin behar duzu”; nahiz eta zure aurrean dagoena zu baino jakintsuagoa dela jakin, zu baino ospetsuagoa edo zu baino izen handiagokoa literaturan. Horrekin batera, epaitu egin behar izaten du editoreak egunero, bai idazlan bat zuzentzerakoan bai idazlan bati baietz edo ezetz esaterakoan ere. Horrek erabakiak tentuz eta zentzuz hartzea behartu behar zaituela uste dut, baina ez zaitu erabakiak hartzetik libratzen.

## Zein harreman duzue euskal editoreen artean?

Ona. Ez gara propio biltzen, baina elkartzen garenean harreman ona daukagu. Hortik aurrera, bakoitzak argitaletxe batean lan egi-

ten duenez, bakoitzak nahi du bere argitaletxeak ateratzea libururik politenak, egokienak, ederrenak..., eta horiek kritika onak lortzea. Lehia sana eta lagunartekoa daukagula esango nuke. Azken batean, guztion erronka da Euskal Herri kultuagoa lortzea eta irakurketak estimazio handiagoa izatea. Irakurle on batek denetik irakurriko du, eta hori da bilatu behar duguna: gero eta irakurle on gehiago.

## Zertan da desberdina gurea bezalako literatura txiki bateko editore izatea herri handiagotako editore izatearen aldean?

Hor badago diferentzia argi bat, gure txikitasunaren ondorioa izan arren, poztekoa dena: gaur egun, Euskal Herrian ez dago argitaratu gabe geratzen den lan onik. Aldameneko literatura handietan badaude idazle oso onak argitaratu ezinik dabiltzanak. Denek nahi izaten dute argitaletxe inportanteetan atera, eta horien produkzioa mugatua da, eta postu gutxi horietako bat lortzeko askoz ere lehia gogorragoa izaten da. Askoz ere gupidagabeagoa eta gogorragoa iruditzen zait eta, aldi berean, editoreek askoz ere gehiago funtzionatzen dute markinarekin. Euskal literaturan, zorionez eta zoritxarrez, gure txikitasunaren ondorio

**Nabarmentzen ausartu**  
Hor kanpoan beste Julio Verne bat egon daiteke.  
Zu al zara?

Antolatzaileak:  
ELHUYAR fundazioa  
CAF

Laguntzaileak:  
EUSKO JAULILARITZA  
GOBIERNO VASCO

**2.000 €**  
- Dibulgazio-artikulu originalak:  
- Dibulgazio-artikulu orokorrak  
- Egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluak  
- Zientzia-kazetaritzaren arloko lanak

**5.000 €**  
- Gazteei zuzendutako zientzia-narrazioak

**CAF ELHUYAR**  
sariak 2010

**Parte hartu.**  
Informazio gehiago eta oinarriak:  
<http://caf-elhuyar-sariak.elhuyar.org>

## **GALDE SORTA**

### **Ez Dok Amairu**

**Harkaitz Cano.** Elegantzia, izaeran nahiz idazkeran.

**Itxaro Borda.** Azken mohikanoaren beltzarga-kantua ote?

**Anjel Lertxundi.** Jakituria, diziplina, eskarmentua.

**Koldo Izagirre.** Asko eman didan laguna.

**Karmele Jaio.** Dorothy Parker euskalduna.

**Kirmen Uribe.** Txanpa harrapatu duena.

**Eider Rodriguez.** Txorrotxa baina maitagarria.

**Bernardo Atxaga.** Gure literaturaren zutabea.

**Unai Elorriaga.** Bihotza eta burua.

**Jose Luis Otamendi.** Herri-saminaren poeta fina.

**Irati Jimenez.** Pasioa; hirugarrenaren zain.

**Amaia Lasa.** Ate inportante bat ireki zuena.

**Joseba Sarrionandia.** Etxean behar dugu.



baita, askoz ere garbiago jokatzeko dugu kalitatearen alde eta konbentzitzen gaituzten testuen alde.

**Euskal argitaletxerik handieneko editorea zara. Euskal literaturgintzarentzat osasungarria da Elkarren eta gainerako argitaletxeen artean tamaina, ekoizpen eta baliabide alde-tik dagoen desoreka?**

Zinez uste dut hobe litzatekeela hainbesteko alderik ez egotea, Euskal Herrian kultur plataforma potente eta indartsu gehiago egotea. Elkar argitaletxea tamaina eta produkzio handi xamarak izatera iritsi bada ondo lan egin duelako izan da, eta bere baliabideak txukun kudeatu dituelako: gastuetan zorrotz eta erabakiak hartzerakoan zuhur edo bista onarekin. Ondo asmatu da kudeaketan eta, oro har, ondo funtzionatu duen taldea da. Nik nahiago nuke beste batzuk ere gure paretsu balebiltza, baina parekidetasuna lortzeko modua ezin da izan guk nahita gauzak gaizki egitea.

**Eta zer da beste argitaletxeek gaizki egiten dutena?**

Ez, nik ez diot inork ezer gaizki egiten duenik. Beharbada, bere garaian Joseba Jakak eta Jose Mari Sorsek izan zuten intuizioa izan zen sekretuetako bat. Pentsatu zuten sinergiak lortzeko modua izan zitekeela banaketa, dendak eta produkzioa talde berean lotzea. Funtzionatu duen formula izan da. Ez da erraza aldeak nondik datozen jakitea. Nik uste, produkzioari dagokionez, argitaletxeetan denok ere berdintsu funtzionatzeko dugu.

### **Udazkeneko uztza**

**"Helduen literaturan dauzkagu Joan Mari Irigoien nobela bat, bere trilogiaren itxiera izango dena; Xabier Montoiaren ipuin liburu bat; Asier Serranoren poema-liburu berria, Pablo Sastreren saiakera, Alberto Barandiaranek Iruña-Veleiari buruz beste bat, eta helduentzat den ala ez den sailkatzea zaila den Miren Agur Meaberen liburu bat, kontakizunez eta poemaz osatua. Horiek ziurtzat, eta besteren bat ere akaso bidean. Horiez gain itzulpenak, eta haur eta gazte literaturan ere mordoak bat. Esango nuke interesantea datorrela".**

**Liburu bat ez da testua bakarrik. Bada izen bat ere, bada argazki bat, bada gaia, bada marketina... Zer pisu du bakoitzak?**

Ez da erraza faktore bakoitzaren pisua balantza batean neurtzen eta, gainera, aldatu egiten da liburu batetik bestera eta irakurle batetik bestera. Bilakaera historikoaren aldetik idazlearen izena beti izan da inportantea. Batzuek esaten dute orain aldatu dela hori, eta izenari gehiago erreparatzeko zaila idazlanari baino, baina ez dut uste egia denik; uste dut lehen ere Txillardegiaren testu bat inportantea zela, besteak beste, Txillardegiarena zelako, edo Joxe Azurmendirena edo Saizarbitoriarena. Eta orain ere, besteak beste, inportantea da Canorena delako, edo Eider Rodriguezena edo Kirmen Uriberena. Izena asko pisatzen duen faktorea da, baina lehen ere bai. Orain, egia da, idazlearen alderdi publikoak, idazletasunak, lehen ez bezalako tokia hartu du. Orain idazlea izan daiteke museo baten inauguraziora eramaten duten norbait. Idazlea nolabaiteko funtzio sinboliko edo totemikoa betetzera iritsi da, baina oro har literatura serioa izaten jarraitzen dugula esango nuke.

**Literaturaren polisistemaren barruan dauzkagu argitaletxeak, hedabideak, irakurleak, irakasleak, kritikariak... Zeren arabera uste duzu finkatzen dela unean uneko literatur kanona?**

Ez da erraza, eta faktore edo agente horiek guztiek daukate zerikusia. Nik garbi daukadana da literaturaren prozesuan bi elementu direla ezinbestekoak eta inportanteak: sortzailea eta hartzailea, eta bien erdian dagoen testua. Horiek dira funtsezkoak. Ez dut esan-

go beste guztiak –kritikariak, hedabideak, argitaletxeak...– bizkarroiak garenik, baina ez gara ezinbesteko elementuak. Kanonarekin botere eta hierarkia kontu bat gauzatzen da, eta batek kanon bat plazaratzen duenean ez du, besterik gabe, bere kanona plazaratzen, nahi izaten du besteek ere norberaren irizpideak ontzat hartzea. Eta horretan sartu daitezke irizpide ideologikoak, linguistikoak, generozkoak, sinpatiazkoak eta abar. Nik nahiago nuke ahalik eta zabalen eta demokratikoen izatea prozesu hori, eta horretarako gero eta irakurle irizpidedun gehiago behar ditugu.

**Ez da polemikarik falta euskal literaturan: Euskadi Sariak direla, Espainiako Sari Nazionala dela, euskal literatura ustelduta omen dagoela, kritika serioerik ez dela... Nola kokatzen zara zu auzi horien aurrean?**

Batetik, normala da, eta edozein herrialde-tan gertatzen direnak gertatzen dira hemen ere, gutxi gorabehera. Bestetik, badira ezagutgarri partikular batzuk herri gutxiagotu bati dagozkionak. Gu nazio zapaldua gara, bere buruaren jabe ez den herri bateko partaide, eta horrek kontraesanak sortzen ditu. Niri, nagoen tokian egonda, zabal, denekin errespetuz eta jarrera guztiak ulertuz jokatzeko dagozikidala uste dut. Nik neuk, idazle naizen aldetik, hartu ditut zenbait jarrera, batzuetan alde eta besteetan kontra, baina editore naizen aldetik idazle guztiak errespetatzen ditut eta beren lana berdin baloratzen dut.

**Nola deskribatuko zenuke zure idazle ibilbidea?**

Estimatzen nauten lagun batzuek esaten didate idazle ona naizela baina literaturari denbora eta anbizio gehiago eskaini behar nizkiokeela. Praktikan jarraikortasunez idatziz dut, eta emankortasunez ere bai, titulu asko ditut merkatuan, baina ia inoiz ez dut egin nobela luzerik, *Berririo igo nauzu* izan daiteke salbuespen bakarra. Nire lana dela-eta denbora gutxi gelditzen zait idazteko, eta neure buruari planteatzen dizkiodan proiektuak narrazioak izaten dira normalean, ipuin laburrak edo ipuin luze xamarak. Batzuetan pentsatzen dut hori dela arrazoia, hau da, denbora faltagatik hiru astetan-edo bukatu daitezkeen proiektuak planteatzen dizkiodala neure buruari. Bestetan pentsatzen dut ezetz, horixe dela idatzi nahi dudana. Normalean, aste batzuetan idatzi daitezkeen istorioak idatzi nahi izaten ditut, bai baitakit momentu honetatik Durangoko Azoka amaitu arte ez dudala ezer idazteko astirik izango. Eta gaiei dagokienez, urteen poderioz konturatu naiz badirela gai batzuk erre-kurrenteak direnak eta nire obran behin eta

berririo agertzen direnak: bihotzaren borroka eta herriaren gatazkak. Arazo sozialak batetik eta sentimentalak bestetik.

**Zuzenean edo zeharka, pertsonaia literario bihurtu zaituzte Aitor Aranaren *Editorea* antzezlanean, eta Ur Apalategiren *Gure Gauzak S.A* eta Kevin Herediaren *Hor Hago Kevin?* eleberrietan. Nola bizi duzu hori?**

Irribarre isil batekin.

**Zergatik uste duzu fikzionatu zaituztela?**

Ez dut uste pertsona bezala pertsonaia bihurtzeko dohain bereziak ditudanik. Gehiago izango da tokatu zaidan tokian nagoelako. Nire lanagatik ezezko asko ematen ditut, eta batzuen etsaitasuna irabaziko nuen eta, bestetik, nolabaiteko protagonismoa duen toki batean nagoenez fokupean egon naiteke. Liburu batzuetan sinpatiaz ikusia egon naiteke, beste batzuetan ez hainbeste. Baina halaxe dira gauzak.

**Inoiz ez zaitu ito euskal literaturaren mundutxoak?**

Egia esan, izan daiteke itogarria, eta bada, baina, aldi berean, patxada pixka bat ere badaukat eta dena onez eramaten saiatzen naiz. Oro har, argiak eta itzalak baloratuz, gustuko lana dut. Miseria txiki horiek badauden bezala, nire lanak eman dit aukera pertsona zoragarriak ezagutzeko ere, eta horietako batzuen lagun egiteko ere bai, eta baita askotan esku artean edertasuna edukitzeko ere. Batzuetan testu zoragarriak iristen zaizkigu, eta plazer handia da horiek esku artean erabiltzea, beste inork baino lehen irakurtzeko pribilegioa izatea, eta horiek hobetzen laguntzeko aukera izatea. Nahiago dut lanaren alderdi onei begiratzea makurrei baino. ■

**argia.com** Mendigurenen gogoetak luze eta zabal jaso ditugu gure webgunean.



• Alex Gibelalde, Google •

# «Ez bagenitu etengabe aktualizazioak sartu, aurre hartuko ziguketen honezkero»

Alex Gibelalde beasaindarrak lau urte daramatza Google enpresan lanean. Deustuko Unibertsitatean Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza lizentziatu zen 2004an, ondoren Donostiako marketin kontsultora batean aritu zen eta bi urtera Google-ek kontratatu zuen Dublín lan egiteko. Urte eta erdi darama Madrilgo bulegoetan marketin arduradun.

IRATI SARASUA

Argazkiak: Alex Gibelaldeki utziak

**Zer eskaintzen du Google-ek bilatzaile ezagunena izateko? Zein da bere sekretua?**

Azkartasuna da gakoa. Gure algoritmoa funtzionatzeko hasi zen eta jendeak bilatzen zuena segundo gutxitan aurkitzen zuen. Funtzionaltasun kontua da. Hala ere, Interneten etengabekoa da aurrerapena eta adi egon behar dugu uneoro. Google-ek ez balitu sartu azken hamar urteetan bi astero sartu dituen aktualizazioak, beste lehiakideren batek aurre hartuko zigukeen honezkero.

Bilatzailea da gure produktu izarra eta chun-ka ingeniari dauzkagu horrekin lanean, hobetzeko eta Internet aldatzen doan heinean guk ere erabiltzaileari ahalik eta emaitzarik onenak eskaintzeko. Esprint modukoa da, beti hobetzen joan behar duzu, lehiakideak pasa ez zaitzan. Mugarik gabeko mundua da Internet eta berrikuntzak egiteko aukera ematen digu.

**Zer nolako segurtasun sistema duzue?**

Google-en edozein produktutan, jendearen informazio pertsonala babesteko segurtasun prozesuak berritzaileenak dira. Norbaitek “Gogora nazazu” edo “Saio hau jarraitu” aukerei emateagatik pasahitza ordenagailu horretan gordeta geratzen bada, ez da gure errua, guk hor gutxi egin dezakegu. Segurtasun handia daukagu, baina erabiltzaileak kontuz ibili behar du informazioa sartzeko moduarekin.

Facebookera igotzen diren argazkien eskubiak eurenak dira eta horregatik erabiltzaileen konfidentzialtasunarekin arazoak izan dituzte.



**Google Docsera igotzen ditugun dokumentuak norenak dira?**

Guk egiten duguna eduki horiek eskuragarri jartzea da soilik. Ez gara horien jabe.

**Espainiako Apedanica elkarteak salaketa jarri dizue, Google Maps-erako argazkiak ateratzen zenituzten bitartean jendearen datuak lortzea leporatuta. Urriaren 4an duzue epaiketa. (Elkarrizketa hau Fiskaltzak kasua artxibatu baino lehen egindakoa da).**

Sor daitezkeen zalantza guztiak erantzuteko agintariekin, estamentu judizialekin eta erakundeekin ari gara lanean. Gure helburu nagusia nahi gabe bildutako datu horiek ezabatzea da, herrialde bakoitzaren legean oinarrituta.

**Hizkuntzei zein garrantzia ematen die Google-ek?**

Handia. Google-en zeregina zera da, munduko informazioa munduko erabiltzaile guztientzat ulerkor egitea. Ildo horretan, Google Translate atera dugun produktu onenetakoa dela uste dut. Gaur egun, 50 hizkuntza baino gehiago ditugu. Informazioa edozein hizkuntzatan ikusteko aukera ematen digu, baita webguneak hizkuntza ezberdinetan ikustekoa ere.

Hizkuntza ezagunenekin ez dugu arazorik, horietan idatzitako informazio asko dagoelako sarean eta beraz kalitate ona dutelako. Guk, hizkuntza baten kalitatea ona dela jakiteko, nazioarteko erakundeek (NBE, Europar Batasuna, AEBetako Gobernua) duten informazioa gure sisteman sartzen dugu. Sistema geroz eta inteligenteagoa izateko guztion laguntza behar dugu, hizkuntzaren kalitatea hobetzeko erabiltzaileak tresna erabili behar baitu, horrela sistemari irakatsiko dio-eta. Adibidez, ikusten baduzu itzulpena kaskarra dela, behealdean egon ohi den “itzulpen bat proposatu” aukeran klik egin eta zure proposamena idatzi; zenbat eta proposamen gehiago, orduan eta kalitate hobea lortuko dugu. Euskara iragan maiatzean atera genuen Alpha moduan (garapen fasearen hasieran), ez dago oraindik informazio asko gure hizkuntzan

## Win-win-win

**“Erabiltzaileak edozein lekutan eta edozein formatu edo aparailutan informazioa bilatu ahal izatea nahi dugu, izan mugikorra, telebista edo bestelakoa. Win-win-win harremana da: erabiltzaileak pozik badaude, enpresek Google iragarri nahiko dute eta Google ere pozik egongo da. Hiru taldeak pozik egotea da xedea: erabiltzaileak, enpresak eta gu geu”.**

eta kalitatea falta zaio. Kalitateak estandar minimo batzuk mantentzen dituela ikustean, Alpha egoeratik aterako dugu. Denon laguntza behar dugu, askotan jendeak euskara eskatzen duela, baina gero ez du erabiltzen. Google ahalegin handia egiten ari da hizkuntza txikiekin, baina erabiltzaileek erabili dezaten egiten dugu, bestela ez du inongo zentzurik.

**Aplikazio berririk duzue?**

Azkenaldiko berrikuntza garrantzitsuenetakoa bilatzailean egin dugu. Badirudi bilatzailea zerbait estatikoa dela, baina azken batean gure bihotza da. Bilatzailea da Google handi egin duena. Ondo zaintzen dugu beti eta bi astero eguneratzen dugu. Orain, ahalegin berezia egin dugu emaitzak hobeto indexatu daitezen lortzeko, azkartasuna funtsezkoa baita, informazioa denbora errealean aurkitu nahi du jendeak. Egokitzen goaz bilatzailea, eguneratzen: irudia sinplifikatu egin dugu azkarrago kargatzeko eta erabiltzaileak behar duen informazioa formatu egokian emateko. Lehen testua baino ez zen azaltzen emaitzetan; orain, bideoak, testuak, mapak eta audioak ere eskaintzen ditugu. Bilatzen ari garen informazioa edozein formatutan eskaintzen dugu.

**Google Wave iaz kaleratu zenuten eta jada desagertzeaz dago...**

Bai, iaz egin genuen aurkezpena. Aplikazio honi esker jendeak denbora errealean elkarrekin komunikatzeko eta lan egiteko aukera zuen, baita irudiak eta multimedia artxiboak partekatzeko ere. Jarraitzaile sutsu batzuk izan zituen, baina ez du izan guk espero genuen harrera.

**Google Nexus One mugikorra ere atera zenuten. Nolatan sartu zineten telefoniaren sektorean?**


Nexus filosofia diferentearekin jaio zen. Duela bizpahiru urte, mugikorretan nabigatzeko balio duen Android sistema operatiboa atera genuen, sistema operatibo global eta irekia, Google-ek plataforma irekietan sines-

**SaiazGetaria**  
H o t e l a

Roke Deuna, 25 • GETARIA  
www.saiaszgetaria.com • Tel.: 943 140 143



bilera gela



## Bilatzaile boteretsua

### DATUAK (2009):

- Langileak: 22.000 mundu osoan.
- Erabiltzaileak: 23,6 milioi Espainiako Estatuan (nielsen datuak).
- Gmaileko erabiltzaileak: 6,8 milioi Espainiako Estatuan (nielsen datuak).
- NASDAQ burtsa-indizean kotizatzen du GOOG izenpean.
- Diru-sarrerak: 23.651 milioi dolar.
- Irabaziak: 6.520 milioi dolar.

### APLIKAZIOAK:

- **Bilatzailea:** guztietan garrantzitsuena.
- **Google Docs:** denbora errealean, edozein dokumentu editatzeko eta jende askoren artean partekatzeko balio du. Deskargatu edo ikusi egin daiteke, inongo kosturik gabe.
- **Gmail:** posta elektronikoa, "azkarra eta nahiko berri-tzailea da. Elkarrizketak batera jartzen ditu. Eta karpeten ordeztaketak daude".

- **Google Maps:** lekuen bilaketak egiteko. "Internet hain globala izan arren bilaketa gehienak gure inguruan egiten ditugu. Beti uste dugu Internet erabiltzen dugula munduko beste puntako gauzak ikusteko, baina inguruko informazioa interesatzen zaigu batik bat".
- **Google Translate:** itzulpengintza xede duen aplikazioa.
- **Google Sites:** aukera ematen du webgunea eraikitzeko.
- **Youtube:** "oso inportantea da guretzat. Finean, munduko bigarren bilatzailea da, Google eta gero".



ten duelako. Telekomunikazio enpresek eta erabiltzaileek euren beharren arabera pertsonalizatu dezakete sistema operatibo hori eta edozein operadorearekin erabiltzeko aukera ematen du. Zer gertatu zen? Ia bi urte pasa ostean ikusi genuela beste mugikorrek ez zutela bere osotasunean aprobetxatzen Android sistema operatiboaren potentziala. Horregatik, guretzat mugikor perfektua izango zena ateratzea erabaki genuen, Android-ekin zer egin zitekeen erakusteko. Badakigu mugikorra ez dela gure sektorea eta telekomunikazio arloetan sartzea oso zaila dela, batez ere telefonia zerbitzurik eman gabe, baina gure asmoa bete genuen, ez baikenuen mugikorra bera helburu, baizik Android sistema operatiboa merkatuan mugitzea. Orain, sistema hori duten 160.000 mugikor baino gehiago saltzen da munduan egunero, bi dispositibo segundoko.

### Telebistan sartu duzue burua...

Guk etxean telebista eta ordenagailua ditugu, bi gauzak inoiz ez dira ondo eraman, inoiz ez dira koordinatu, eta enpresa ugari saiatu dira biak uztartzen. Google TV sortu nahi izan dugu guk. Aplikazio modukoa aurkeztu dugu jada, kaxa moduko bat: Interneten nabigatu dezakezu eta betiko kanalak ikusteko aukera ematen du. Telebista da etxeko elementu garrantzitsuenetakoa eta gure helburua izan

da Internet telebistan txertatzea, telebista ere nabigatzeko plataforma bihurtzea.

### Enpresa berezia omen da Google, lan egiteko moduan...

Enpresa nahiko berria da, 12 urte ditu soilik eta azkenaldian asko hazi da. Filosofia ezberdina du: zure mahaian ordenagailuarekin egon beharrean, nahi duzun askatasuna duzu. Futbolinean jolastu edo leku batean lasai egoteko aukera dugu, eta une horietan ideiak sortzen bazaizkigu, paretan ditugun arbeletan idatz ditzakegu. Google-en helburua langileari gauzak erraztea da. Egia esan, denbora gutxi pasatzen dugu horrela, baina gutxienez estres momentuetan kanpora ateratzeko, jolasteko edo lasai egoteko aukera dugu. Langileak pozik eta gustura egotea nahi du Google-ek.

**"Google ahalegin handia egiten ari da hizkuntza txikiekin, baina erabiltzaileek ez badute erabiltzen ez du inongo zentzurik. Denon laguntza behar dugu"**


### Nola ikusten duzu prentsaren etorkizuna Interneten?

Nik uste papereko prentsa ez dela desagertuko. Baina Interneteko kazetaritza hazten joango da, hori seguru, etorkizuna hori izango da. Faltza dena da hedabideek Internet eurentzat probetxugarri bihurtzea. Datozen urteetan mugimendua egongo da eta ziur urte batzuk barru guztientzako baliagarria izango den modua aurkituko dela. Erabiltzaileak behar duen informazioa aurkitzeko aukera izango du eta komunikabideek beraien diru-sarrerak lortzeko. ■

GORA PRO NOBIS

*Asisko Urmeneta*

aro berriak  
hiztegi berria



# TTAKUN (H)ERRENKA

## Bi taza, my friend

**E**z zaitez inoiz formari lotu, hura moldatu eta zure egin, eta utzi hazten, izan zaitez ura bezalakoa. Burua hustu, izan formagabe, moldaeraz, ura bezala. Taza batean ura bota, eta ura taza bihurtzen da. Botila batean ura bota, eta ura botila bihurtzen da. Teontzi batean bota, eta teontzi bihurtzen da. Ura isuri edo pilatu egin daiteke. Izan ura, ene adiskide”, “*Be water my friend*” munduan diren aipurik ospetsuenen artean ospetsuenetakoa izatera heldu da. Ekialdeko eta mendebaldeko jarraibideen bere laburpen pertsonal moduko horretan biltzen da Bruce Lee legendazkoak landu nahi izan zuen filosofia. Baina hori txino da guretzat. Saiatu saiatzen gara barre-terapia, yoga, pilates, lurrin-terapia edota kosmetika naturala bezalako beste mila ikastaroetan izena ematearen bidez, baina horrela ere ezin lortu, ezin gure eskuak, gure azpiak, gure sorbaldak, gure hitzak, ezin gure burua ur bihurtu. Gure printzipioen teontzia urez bete, eta teontziak teontzi izaten jarraitzen du. Gure demokraziaren botila urez bete, eta botilak ez dio botila izateari uzten. Gure gizartearen taza urez bete, eta zer lortuko dugu, taza izaten jarraituko duela, besterik ez. Ezin dut kontrakoa esan. Gu ez gara ura, taza baizik. Katilua gara. Katilu handia. Taza gogor-gogorra eta handi-handia. Eta ez diot ba nik aurpegi irribarretsuri mar-gotuta ikusten, gehiago ikusten diot zoriontasuna itotzen eta nahigabeen bizitzen ikasi duenaren giza aurpegi serio eta tristea. “Zelarik nahi ez duenari eman bekio arbalda” (*Al que no quiera taza, taza y media*), horixe da gure egunerokotasunaren tazak esateko digun guztia. Herri oso tristeon bizi gara; zerbait ez dabil ondo. Beñatek, ttakun modu bikainez, hori ere esan egin

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Urkiza

behar baita, zutabea ARGIA-ra bidaltzeko puntuan zegoela publiko egin zutela ETAre-aren agiria, “eraso ekintza armatuak” ez egiteko erabakia hartzen zuela iragarritz. Gaur, ETAre bigarren komunikatu bat daukagu, nazioarteko komunitateari dei eginez, “Konponbideak behar dituen urratsak elkarrekin aztertzeko”. Eta politikarien kasuan behintzat, ez dut nik poztasun berezirik nabaritu. Ditugun agintariak ikusita, agintaririk gabe lasai asko bizi gintezkeela uste dut, baina gure garaiko sistema politiko tristetean poz-pozik gaude gure presidente, alkatete eta zinegotzien gehiengoarekin berezkoa duten kirtenkeri maila handiarengatik. Zertarako behar dugu talde armatu baten su-etenaren aldarrikapenaz poztan ez den gobernu bat? Herri triste batean baino ezin dira horrelako koadro patologikoak gobernaritzat jo. Herri zorionsu batean ospitale-ramango zituzten zuzen-zuzenean, eta tratamendu psikiatrikoa ezarri. Baina ohitu egin gara nahaste-borraste neurotiko honetan, eta taza batetik beste taza batera doan ura izan nahiago dugu; preso dagoen uraren antzera bizitzen jarraitzea izan da hartu dugun aukera. Urgune itsua gara Platonen leize-zuloan, benetako gauzen itzalak baino ez ditugula ikusten. Baina gure buruak argi-gune batera atera beharko ditugu noizbait, eta hasieran argi gehiegizkoak itsutu egingo gaitu, eta ez dugu deus ikusiko, eta, agian,

Txileko San Jose meategian, 700 metroko sakon-ean harrapatuta eta kanpoan maitalea eta emaztea zain dituela dagoen meatzari horren antzera, ezki-lore taza bat edo bi ere beharko ditugu, horrez geroztik, ezer ez dela berdin izango baketsu onartzeko, azkenean ur bihurtu dela dakien taza bat bezain irribarretsua. ■



Zertarako behar dugu talde armatu baten su-etenaren aldarrikapenaz poztan ez den gobernu bat? Herri triste batean baino ezin dira horrelako koadro patologikoak gobernaritzat jo



Koldo Aldalur

KAZETARIA

## Hondoko itsasoa

M

ila duroko ederrena baino nahiago nuke iritzi artikulua hau zaharra balitz argia ikusi baino lehen. Urak baretu diren seinale pozgarria litza-teke arraun mundurako.

Donostiako banderaren bigarren jardunaldia amaitu bezain azkar Jose Luis Kortak eginiko adierazpenek hautsak harrotu eta urak lokaztu dituzte. Baina ez ziren izan urteko bandera garrantzitsuenen lortu ezaren berotualdiaren ondorio.

Sailkapen egunetik lehen jardunaldira doan tartean aipatu zigun Kaikuko entrenatzaileak susmo txarra hartzen ziela San Miguel ligako azken txanpari eta Kontxako zita handiari. Ez genuen, egia esan, *sakakortxoarekin* tiraka ibili beharrik izan Ortzaikakoak bere beldurak aireratzeko.

Bere susmotan, arerio zuen arraun talderen batek ibilbide profesional ilun samarreko sendagile entzutetsu bat ekarri zuen mutilen errendimendua handitzen laguntzeko, edo agertzea komeni ez zena tapatzeko. Berak ziur ez zekiela zertan zebiltzan, baina sendagile hori auzitan dabilela beste bi kasu direla medio, eta horregatik, ba hori! Susmo txarra hartzen ziola egoerari.

Harrezkero nire buruan bueltaka dabilena zera da: kirol medikuntza pribatua medikuntza publikoaren aurretik al dabil oraindik? Posible



DANI BLANCO

al da sendagile baten lanaren eraginez kirolari talde batek hainbesteko aldea ateratzea eta kontroletan zertan dabilzan ez igartzea? Egia al da tratamenduak eraman dezakeela kirolaria bere mugatik kanpo dauden esfortzuak egitera? Neurritz kanpo ibiliaren ondorio larriak behin baino gehiagotan errepikatu direla azken urteetan? Olatu zakar horretan murgiltzeko erabakia kirolariarena da, edo klubarena? Damu naiz Kortari galdetu ez izanaz.

Berarekin hitz egin nuen hartan beste zalantza bat ere sortu zitzaidan: talde bakar bati buruz ari ote zen, pare batez, edo orokorra ote da arraun munduari hartzen dion ustel usaina?

Argi dagoena da Kortak garai txarrean zabaldu duela zalantzaren itzala, eta dotoreagoa izango zela, bere garaian, galdera hauen erantzunak plazaratzea.

Bere hitzak indartuko dituen probarik ez badu, alde egin aurretik bota egin beharko lukete, tostetan eta lehorrean aritzen diren arraunlari eta arduradunen ohorea baitago jokoan.

Agian gehiegi ari gara hitz egiten Jose Luis Kortari buruz, eta ondorioz, gutxiegi aipatzen Urdaibaik Kontxa eta San Miguel liga irabazi dituela.

Momentuz hori da arraunzaleok ziur daki-gun bakarra. ■

Kortarekin hitz egin nuen hartan beste zalantza bat ere sortu zitzaidan: talde bakar bati buruz ari ote zen, pare batez, edo orokorra ote da arraun munduari hartzen dion ustel usaina?

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Zaizkigu botere hobietatik, ez dute su-etenik nahi, ez dute beren estrategia aldatuko, ez dute ezker abertzale legalik onartuko. Eta deklarapen horiekin bat, atxilotak egin dituzte hedabideak bozgorailu. Ez dute ohiko galdeketa sistema aldatu. Torturatu egin dituzte hobipeco kazetarien mututze kronikoa lagun. Izan ere, poliziak metodologia horretan heziak ditugu, eta demokraziak eskatzen duen ofizioa ez dute usaintzen ere, buztana zut eta luzatutako eskuari hozka egiten dion zakurraren antzean. Ez dakit nik ET'Arena negoziazioaren ondorioa den, baina nago botere

## Argi mintzo

hobian ez dutela aldakuntzarik nahi eta orain artekoan jarraitzeko determinazioan daudela. Ez da erraza izango

betikotasuna desikasi eta inpunitatearen latza berdintzen arteko harremana bilakatzen ikasi, gizaki orok irabazita dituen oinarrizko eskubideak errespetatu, galdeketa inteligenteei bidea eman, torturatzaila gaizkile patologikotzat joz botere hobien lokatzak eta gorotzak betiko garbitu eta desagerraraztea. Ez da eri txarragorik bere gaixotasuna onartzen ez duena baino, eta osasungile lanjerosagorik eritasuna bertutetzat duena baino. Eta hauen esku daukagu gure osasun demokratikoa. RIP. ■

Rosa Maria Martín Salazaris

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA

## Kubako turista akzidentala

**U**dan bi milioi pasatxo turista izan da Kuban. Beste herri guztietan ez bezala, gehienak iritzi-emaile eta aditu bilakatu dira etxera itzulita-koan. Ez ikusitako paisaiak eta patxada ederrean dastatutako gastronomiaz edo kulturaz. Egun batzuk hoteletik hondartzara igaro, malekoian buelta erdia eman, nahikoa izan dute gehienek Kubako sistema sakonki ezagutzeko, Kubak dituen gaitzak antzemateko, eta lau haizetara zabaltzeko. Behin etxera itzulita, berehala aurkitzen baitu bidaia horrek Kubaz alde aurretik hedatuta zeuden aurreiritziak argitaratzeko aukera emango diona.

Kubako hedabideei buruzko ikerketa egitera nindoala esan diodanean, ezkerreko pedigridun turista horrek txistea bota du: “Egun bateko lana izango da, ezta?”. Blokeo mediatikoaren aldeko berri-lapiko horrek hedabide bakarraren mitoa zabaltzen lagundu nahi duelako. Baina hamaika milioi biztanle dituen herri honetan hamaika baino gehiago dira hedabideak. Eta ez dut uste beraien lerro editorialetan hemengoetan baino aniztasun gutxiago dagoenik.

Kubako iraultzaren hasierako urteetako asmakaria da *coletilla* delakoa edo bukaerako argibidea. Komunikabideetako langileen esku-bide xelebrea: egunkariaren jabeak agindu beza-la albistea idatzi bai –hemen bezalaxe–, baina



INIGO AZKONA

gero azpiko ohar batean: “Albiste hau ez da guztiz egiazkoa, eta kazetaritza etikaren aurka doa”. Hori balego gure inguruan...

Oso zaila da mitoen aurka borrokatzea. Mito gehienak indarrean dagoen botere-sistemari eusteko erabiltzen dira, botere ekonomikoa, politikoa, sinbolikoa... Eta 50 urte hauetan gaitzetsi duten herriaren aurkako blokeoa genozidioa balitz? Aginte mediatikoak behar dituen mito egokiak hedatzen laguntzen dionari ematen dio espazioa, hitza, saria.

Mexikon beste oporraldi bat igaro ondoren, gure turistak artesania azteka eta pipermina ditu hizpide. Berba bat ere ez han eraildako kazetariez, pobrezia kapitalistaz. Kubatik bueltan, aitzitik, aldaketa politikoak aldarrikatu ditu, demokrazia eta askatasunaren izenean. Alajaina!

Euskal Herrira ere hainbat turista etorri da aurtan. Zer idatz lezakeen turista akzidentalak uda hasieran pasaportea berriztatzeko zeuden ilarei buruz –Kuban burokrazia?–. Edo Bizkaian gehien irakurtzen den egunkaria ikusita, argi izango luke zein den hemen gehien iragarritako zerbitzua –non sexu esklatutza?–.

Kuba eta Euskal Herria ez dira kolore bakaerrekoak. Biek pairatzen dute gainasetasuna hedabideetan. Turistarik gabe erabaki beharko du bakoitzak noranzko aldaketa nahi duen. ■

«  
Mito gehienak indarrean  
dagoen botere-sistemari  
eusteko erabiltzen dira  
»

TXANDAN

Castillo Suarez



Orratzez iltzatutako tximeletak ditut gogoa. Haur ankerrak ginen batzuetan. Era guztietako intsektuak –batez ere tximeletak– harrapatu eta orratz batez kortxo batera lotzen genituen, bizirik. Zomorro haiek zenbait orduz egoten ziren hegalak mugitzen. Beharbada ez ziren orduak, minutuak baizik, baina hil hurren ziren une horiek luzeak egiten zitzaizkigun oso. Handik egun batzuetara tximeletek beren edertasuna galtzen zuten gure hatzetan itsasten baitziren hegaletako hauts koloredunak eta gure bildumak

### Tximeletak

bota egiten genituen zakarrontzira. Gure artean bazen neskato bat onberatzat genuena. Ihes egiten zuen animaliekin barrabaskeriak egiten ikusten gintuenean. Behin jakari lotu genion kakalardo bat eta jantzi zuen arte ez zen konturatu. Ez zigun oihurik bota. Kontu handiz orratza kendu eta lurperatu egin zuen xomorroa, penatua. Ez dakit noiz galdu zuen besteen sufrimendua ezin pairatzeko sen hura. Zerk narkotizatu zuen, baina neska horrek ez du berdin sufritzen. Nolanahi ere, seguru nago memorian iltzatua duela egun hura –dugula, alegia. ■

# ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

## Horoskopoa

A

**RIES.** – Aita hilko zaizu aste honetan. Baina ez alde tragikotik hartu. Zure amak, alargun gaixoak, berehala topatuko du hutsunea (zentzurik hertsienean) norekin bete: zure osaba; aitaren heriotza berak eragin ote zuen zalantzak loa galaraziko dizu. Ez ahaztu pilulak hartzea, edo ahotsak entzun ditzakezu.

**TAURUS.** – Bizitza batzuetan korapilatsua da, ezin askatuzko hari bat bezainbat. Zuk zeuk sortu duzun labirintotik ihes egin beharko zenuke. Bidaia bat komeniko litzaizuke, ozeanoan zeharreko hegaldia bat, esaterako. Kontuz: harreman familiarak zaindu itzazu, senitarteko bat ez baduzu galdu nahi.

**GEMINI.** – Zorionekoa zara. Zure nagusiak huts egingo du lanean eta eguna libre hartuko duzue bulegoan (edo dena delako lantokian; halakorik bazenu, noski). Pub batean jaieguna ospatzera abiatuko zarete denok. Bertan pertsona berezi bat ezagutuko duzu.

**GEMINI.** – Zoritzarrekoea zara. Zure nagusiak huts egingo du lanean eta eguna libre hartuko duzue bulegoan (edo dena delako lantokian; halakorik bazenu, noski). Pub batean jaieguna ospatzera abiatuko zarete denok. Bertan pertsona berezi bat ezagutuko duzu.

**CANCER.** – Norbait berezia ezagutuko duzu gaur. Eman zaitez desiteta. Oraindik ezagutu gabeko plazer mailetara eramango zaitu, baginaren bidezko orgasmoa edo prostataren bidezkoa (edo biak) azkenekoz deskubriturik. Minbizia duzula, bide batez esanda, ahanzaraziko dizu.

**LEO.** – Horoskopoa leitzen ari zara (*Berriakoa*, nork daki zergatik, kendu zutenetik, lehenengo aldia da euskaraz egiten ahal duzula); susmoa duzu hura idatzi duen bekariak eleberri ezagunetako laburpenak eta burutik pasatzen zaion lehen lelokeria baino ez dela jartzen ari. Aurrera gabe, idazki serioagoetara joko duzu, erraza da asmatzen.



JOSU SANTESTEBAN

**VIRGO.** – Sexu joera aldatzeko garaia heldu zaizu. Jauzia egin beharko zenuke eta badakizu. Osasunari dagokionez, aste honetan atentatu batean hilko zara (ni ere sinetsita nengoen oraingoan baietz). Kontsola zaitez pentsatuz helburua ez zinela zu eta edonola ere ez zinatekeela inoiz ausartuko armairutik ateratzera.

**LIBRA.** – Bi emakumeren artean hautatu beharko duzu, zein baino zein dotore eta erakargarriagoak. Bata hemengoa eta bestea atzerritarra izateak ez dizu kinka gaiztoan lagunduko. Ez zaitez lar obsesionatu, edo (zer gertatzen zaizue euskaldunoi?) bakarrik amaituko duzu.

**ESCORPIUS.** – Lanpostu hobe bat proposatu eta lankide jasangaitz hori begi-bistatik galtzetik hasita, eremu profesionalean dena ongi joango zaizu. Osasun kontuak ere primeran (fuma puta horregatik ez balitz). Zerari dagokionez, Gemini batekin, ala bestearekin, harreman bat hasteko bolada ona iragartzen dute izarrek.

**SAGITARIUS.** – Ezuste handia hartuko duzu. Makrosumario batean prozesatuko zaituzte, horrek demokrazia honetan dakarren guztia-ekin. Baina, etsipenik ez hartu: zure bihotzeko futbol taldeak hil ala biziko partidua irabaziko du aurki eta herri honetan aurki ere gauzak aldatzera doaz.

**CAPRICORNIUS.** – Gaur ere ez zaizu ezer gertatuko [horoskopoa honen egilearekin –berriro diotsut– egon ezean].

**AQUARIUS.** – Hurbileko lagun bat oso gaizki pasatzen ari da osasun arazoak direla eta. Gaur ez da hitzordu batera etorriko; horrek kezkatuko zaitu. Trantze txarra pasatzeko, jan ezazu konpulsiboki.

**PISCIS.** – Zerbait garrantzizkoa joan zaizu burutik. Ez da gertatzen zaizun lehenengo aldia, eta eskerrak, orain, lasai, aldizkaria eskutan, apur bat pentsatzera gelditu zaitezkeela... Ez, argi dago, ezingo duzu gogoratu. ■

«  
Gaur ere ez zaizu  
ezer gertatuko  
[horoskopoa honen  
egilearekin egon ezean]

»



irudia:  
Antton Olariaga

## BERTSO BERRIAK

Xabi Paya

### 2-xabi-xa

INIGO AZKONA



Xabi Paya/ni Birminghamgo Unibertsitateko Euskara eta Euskal Kultura irakaslea izango da/naiz ikasturte honetatik aurrera. Ez du/t Bizkaiko Txapelketan parte hartuko.

#### I

**Unibertsitateko maisua, nolatan?**

Lehen ere jardun naiz hamaika gelatan.

**Bai, baina sekula ez Birminghamgo mapan...**

hangoak hasi nahirik euskaraz kalakan, ezin nituen utzi irakasle faltan.

#### II

**Zerk motibatu zaitu kanpora joatera?**

Asmo hau ez da sortu unetik unera:  
amaitu nuenetik  
Gasteizen karrera,  
pasatu nahi izan dut mugako barrera eta azkenik nire ametsa bete da.

#### III

**Zergatik ez zenuen orduan alde egin?**

Beste amets bat ere banuen nirekin,  
bertsolari izan nahi nuen berdin-berdin,  
eta Euskal Herrian geratu nintzen, fin,  
bi ametsetako bat behintzat bete zedin.

#### IV

**Aitzakia ote da bertsoa uzteko?**

Otaño Argentinan bizi zen ederto,  
Mañukortaren herri izana da Elko,  
bertsolariak ez du adinik hasteko,  
ezta Xabik gogorik ahoa ixteko.

#### V

**Zenbat denborarako zoaz hara gora?**

Urte bakarrerako ez noa inora!

**Betirako ez zara han geldituko ba?**

Nahiz asko ez gustatu tea eta soda,  
nahia aldatzen bazait, hala izango da.

#### VI

**Ez al zara joango txapelketen erruz?**


Bertsotan ez naiz bizi ezinaren damuz:  
nahiz eta puntuetan batu zenbait minus,  
aldi batez oholtza bihur bedi campus,  
bizitzan dena ez da bertsuz eta versus.

#### VII

**Nola bizi dituzu azken txapelketak?**

Gogoan ditut lehen aldien ferekak,  
baina ailegatzearan rutinaren bueltak,  
desagertzean tripa peko tximeletak...  
errazago egiten dituzu maletak.

**DOINUA:** "Maisu zer da Ruanda?".



Bidali zure sortak [bertsoak@argia.com](mailto:bertsoak@argia.com) helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

## Literatura

# «Uste nuena baino mundu konplexuagoa da islamdarrena»

Hona Marokon hasi eta Txinako mugan amaitzen den bidaia, istorio bilduma, denboran atzera eta aurrera dabilena. Islamaren gainean duen ikuspegiaren atal bat aldatu du bertara Jose Enrike Urrutia Capeau (Iurreta, 1954) idazle eta margolariak, Mahoma zaleen artean igeri egin ondotik. Mundu irudiz hain urruneko hori gure klasikoen iturri garbitik edanez idatzi du, ohi duen estilo eta modu pertsonalean.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Lau urte ere badira aurreko liburu hartatik, *Ergelen nonbrea* (Pamiela). Aldizkari honetan bertan egin genizun elkarriketa. Hala ere, zure arrangura, ez genizun Jürgenen galdera egin: “Zein da egoeraren egoera?”, erran nahi baita, zertan da liburuaren xedea? Ez nuke huts bera egin nahiko.

Liburu baten aurrean jartzen garela, pentsatu behar dugu idazleak baduela gogoeta bat, egin duen lan hartaz. Horretan da Jürgen en galdera hori. *Assilah-koa* honetan, berriz, arabiar giroko istorioak batu ditut. Aspaldi egin izan ditut gisako istorioak, *Mila gan eta bat gehiago* liburu guztiz klasikoa-ren harian, etengabe jotzen baitut iturri horretara, irakurtzera. Zaletasuna, beraz. Horregatik nituen idatziz arabiar istorioak. Batzuk eginak nituen ez, Islamari buruzko ikuspegi eskaintzea etorri zitzaidan gogora; eite bereko narrazio gehiago idatziz betiere, jakina. Handinahia dirudi, baina hori da nik, nire neurrian, egin nahi izan dudana. Horregatik

baliatu dut liburuaren egitura hiru ataleko hori ere, istorio zerrenda huts eskaini gabe. Lehenengo atalean, Islamaren hazkunde ageri da. Bigarrenetan, abasiden sasoia, kalifak indarrean daudenean. Hirugarrenetan, geroko endekatzea, apurka-apurkako galdera prozesua. Horrela osatu dut Islamaren ikuspegi hau. Horra Jürgen en galdera garbi eta klar ihardetsirik!

Jose Enrike  
Urrutia Capeau



Aitzin solasean Marokora egin zenuen bidaia duzu aipagai. Hori ote da narrazio bilduma honen abiapuntu?

Behin batean, hamasei urte nituenean, Turkian izan nintzen, Ezmirnan eta bestetan. Gainerakoan, Tunisia eta Maroko baizik ez ditut ezagutzen. Eta Marokora baino lehen ere banuen arabiar giroko istoriorik idatzia. Erlijio kontuetatik abiatzen nintzen, horixe baita gehien interesatzen zaidan alderdia. Mairu herririk ez ezagutu arren, *Korana* eta bestelako liburuak irakurrita idazten nituen nire istorioak. Jakina, Marokora behin eta berriz eta askotan joanda, eta Assilah-n hiru hilabeteko egonaldia egin ondoren, nola ez idatzi! Mundu hura sekulako kolpea gertatu zitzaidan, oso mundu ezberdina baita alde askotan. Horrekin batera, Maroko iparraldean beste hizkuntza bat bazela jakiteak —bereber hizkuntza, alegia—, bada, uste baino gehiago korapilatu zuen nik



**"Nik ez dut zalantzarik nor hartu eredu: burua, Axular!"**

nuen ikuspegia, hura uste baino askoz ere mundu konplexuagoa zela jabetu nintzen. Denetarik topatzen da han, nahasian, eta interesa piztu zitzaidan, nola arraio bizi ote den jende hura.

**Hiru hilabeteko egonaldia Assilahn, diozu. Horrek ekarri ote du liburu honetako ipuin sendoena izenburuko bera izatea, *Assilah-ko eroa*?**

Lekua baliatu dut nik, oso ederra baita. Batetik, itsasoa; bestetik, razulien jauregia... Leku ederra, badiotsut, zuri-zuria koloretan pintatua. Ipuina pintore bati buruzkoa denez, bada, ezin egokiagoa dut Assilah.

**Argitasun bila dabilen pintorea...**

Lehenbizian ez daki helburua argitasuna dela. Berak Assilah-ko dorre eta bazterrak pintatu nahi ditu, bide hartatik nahi duena lortzen ez duela konturatzen den arte. Horregatik uzten dio pintatzeari amaieran.

**Cecilia Arrozarenaren *El roble y la ceiba. Historia de los vascos en Cuba* (Txalaparta, 2003) liburuan ber maneran deskribatzen zaituzte zu: "Argitasun bila dabilen pintorea".**

Horrela deskribatzen nau Arrozarenak, bai. Hain zuzen, Marokon deskubritu nuen nik argitasuna. Assilahko eroari gertatzen zaiona neuri gertatu zitzaidana da, neure esperientzia. Ezina da argitasuna pintatzea, non edo non islatuta ez bada. Monetek ere ezin izan zuen! Horretara gehien hurbildu dena izan arren. Kontuan har aitzo batez urratu zituela Monetek bere margolanak, ezin zuelako argitasuna berak nahi zuen heinean islatu. Gainera, itsutzen ere ari zen, ikusmena galtzen.

## Argitasunaren bila ero

"Ikusten dut argitasun jakin bat eta hura margotzen saiatzen naiz. Argitasun hori, bestalde, momentu zehatz bateko kontua izaten da. Orain hor da, orain ez dago. Eguzki egun betean, urdin-urdina duzu mendebaldea. Ekialdea, zurixka?... Zeruak duen argitasun hori, tristetasun hori erakutsi nahiko nuke nire pinturan, baina ezinezko da, ez dago modurik. Horregatik uzten dio pintatzeari Assilah-ko eroak, Thierry pintoreak. Eta bilakatzen da begirale, so egile! Ni, hala ere, ez nago trankil pintatzen ez badut. Fistula horia [*Cassia fistula*] delako arbola ikusi, atzean etxe bat urdina duena, horitasuna areagotzen duena... Horitasun hutsa da hura! Hori ikusi eta pintatu beharra daukat. Saiatu, bederen, nahiz eta egindakoa gero apurtu!".

**Zientziaren kutxa** **Guneko simulagailu berrietan, dibertsioa ziurtatuta duzu!**

- 4 plazako bi plataforma.
- 9 pelikula ezberdin eta joystick-arekin gidatzeko aukera.

**gizarte kutxa**  
ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA  
Zugandik Zugana

Donostia - [www.kutxaespacio.es](http://www.kutxaespacio.es) - 943 012 478

Ikusiak ditut haren lanak Parisen, urratuta! Ezintasuna!

### Zer dute ikustekorik ipuin atariko marrazkiek eta ondoren datozen istorioek?

Argitaratuko diren ipuinak erabaki ondotik dator marrazkiak egitea. Liburuaren prozesua oso da luzea, urteak ere igarotzen dira. Hasierako liburutik bost urte geroago argitaratzen den hartara, ez dago ikustekorik. Bitarte horretan erabat aldatzen da liburua. Marrazkietan, berriz, lagunak agertzen ditut, Txema Larrea, Luigi Anselmi, Jesus Etxezarraga, Jose Julian Bakedano... jolasean, moztortuta. Lagunekin batean barre egin nahi dut, ez besterik. Kanpoan bizi naiz eta ez dut haiekin harreman handirik, baina gogoan ditut, eta horixe esan nahi diet marrazki bidez. Barkoxtar lagunak ere ageri dira marrazki horietan, jakin dezaten ez ditudala ahaztu. Horrela ageri dira, inoren itxuran; bata da mairu, beste sultan, hurrena Simbad... Osagai komikoa duzu.

Osagai komikoa –marrazkia–, konstantea zure lanetan, *Kadrila alegera festan da* (Pamiela, 1979) lehen lan hartatik hona.

Umorea sartzea gustatzen zait, dela marrazkien bidez, dela hiruzpalau ipuinetik behin

## Ideiatik ipuinera

“Ideia baten inguruan muntatu ditut istorioak, irudietatik abiatu gabe. Ideiaren bat ibili askotan buruan eta, xehetasun edo elementu txikiren batetik ideia beste era batera agertzea gertatu izan zait. Horrela dator ipuina”.

umorearen bidetik joz. Gozatu egiten dut halako pitokeriak idazten, zertan ez idatzi, bada! Hala ere, umorea ez da liburu kanpotik barrura ekartzen dudana ezer, liburuko istorioari berari dario umorea.

Idazteko manera ez duzu batere pitoa. Klasikoak dituzu eredu, eta haien egikera landua darabilzu, ekialdeko euskararen usainean.

Idazteko manera pitoa ez, jakina! Prefosta! Moliere da hor: barre egiten duzu hura irakurtzean, baina haren hizkuntza ez da pitoa batere! Egoera da barregarria, ez hartarako hizkuntza.

### Hizkuntza batu estandarra.

Liburu honetan Euskaltzaindiaren arau eta gomendioak barneratu ditut. Aurrekoan, ez nuen horrelakorik egiterik izan. Atzerrian bizi naizenez, ni kanpoan nintzen bitarte luzean Akademiak hainbat arau ezarri zituen, batzuetan lehenagokoak aldatu ere bai, eta nik arrastorik ere ez, ez nuen horren berririk batere. Euskaltegian euskara irakasle izan nintzenetik hona hainbat aldaketa izan dira baina nik ez dut prozesua bizi izan. Eta nola jakin, erbestean? Ustekabean harrapatu ninduen aldaketak. Horregatik, aitortzen dut aurreko liburua [*Ergelen non-*

**donostiakultura.com**  
San Sebastián, ciudad de la cultura

**2010eko UDAZKENA**

**Urriak 10**  
Mayte Martín  
Musika • Victoria Eugenia • 19:00

**Urriak 12**  
Omar Faruk Tekbilek  
Musika • Victoria Eugenia • 19:00

**Urriak 15-17**  
No me hagas daño, Tanttaka  
Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00 • **Estreinaldia**

**Urriak 29**  
Eta tira eta tunba, Joseba Tapia  
Musika • Imanol Larzabal (Lugaritz) • 21:00

**Urr / Aza 30-5**  
Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren XXI. Astea  
Zinema • Antzoki Zaharra, Victoria Eugenia

**Azaroak 6-7**  
Errautsak, Le Petit Théâtre du Pain  
Antzerkia • Gazteszena (Egia) • 20:00

**Azaroak 11-14**  
Xabinaitor, Gorringo  
Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00 (13, 20:00 + 22:30)

**Azaroak 13**  
Sok (2), Kukai  
Dantza • Gazteszena (Egia) • 20:00

**Azaroak 20-21**  
Romeo & Julieta, Malandain Ballet Biarritz  
Dantza • Victoria Eugenia • 20:00

**Azaroak 27-28**  
Duda razonable, Vaivén Producciones  
Antzerkia • Victoria Eugenia • 20:00 • **Estreinaldia**

**Abenduak 16**  
Bide Ertzean  
Musika • Victoria Eugenia • 20:00

**Abenduak 18**  
Sehaska, Kresala Dantza Taldea  
Dantza • Antzoki Zaharra • 20:00



*brea*] ez dela zuzen estandarraren bidekoa. Baina honetan ahaleginean saiatu naiz, erabaki diren bezala ezartzen hitzak, Euskaltzaindiari men eginik.

#### Zer diozu klasikoentzat duzun jaiera horretaz?

Ez dut esateko askorik. Batua egiten ari ziren sasoian hasi nintzen idazten. “Hizkuntza idatzia asmatu behar den honetan, logikoena klasikoak oinarri hartzea duk”, pentsatzen nuen nik. Eta, klasikoetan, buruzagia, Axular. Gustatzen zaidan hizkuntza moldeak, bestalde. Batzuetan, zubereraz idatzi nahiko nuke, oso baita adierazkorra –horra pastoralak, esate baterako, hango irain eta bestelakoak–, baina, gainerakoan, ahal den hobekien idatzi nahi dut, eta horretarako dut Axular oinarri,

nahiz eta gaur egungo moldera ekarri behar den, eta gaur egungo istorio, gai eta kontuak azaltzera.

#### Nahiz eta irakurleari arrotz egin bide hori...

Ez dakit, bada! Eta zer egin behar duzu, Kirikiño hartu ere du? Ez, ezta? Aita Larramendi? Bikaina! Primeran idazten zuen, gaztelaniaz! Beste bat... Nik ez dut zalantzarik nor hartu ere du: burua, Axular!

#### Zergatik idatzi?

Hizkuntza gustatzen zait niri. Hizkuntza hartu eta harekin gauzak esatea. Flaubertek, adibidez, badu liburu bat, lau ipuin edo istorio biltzen dituenak. Istorioak, berriz, ez dira berak asmatuak. Bata, esaterako, San Juan Bataiatzailearen istorioa da. Flauberten idatzi hori irakurri, eta liluragarria da; frantsesez, batik bat. Eta berak dio: “Irakurri ditut istorioak berriz. Ez nekien frantsesa hain ederra izan zitekeenik!”. Bada, nik ere plazer hori dut, gustu hori, edertasuna. Jaki-na, nik erabiltzen ditudan forma klasikoek berririk ez badu irakurleak –batuko forma zuzenak izanagatik ere–, akabo, pikutara! Nik baliatzen ditudan formak ez direla gehien usatzen direnak? Ongi da, baina gustuko ditudanak dira. Niri gustatzen zaidana ez da lurretan usatzen dena. Eta zer egingo dut nik!

#### Zer duzu pintura, zure liburu eta lanari hain loturik ageri den beste jardunbidea.

Kolorea, kolorearen lilura, Picassok esaten zuena. “Laurogei urte daramatzat ikerketan, kolorea zer arraio ote den jakinguran!”. Horixe. ■



Tolosa etorbidea 123, Donostia

© 943 317 162

[www.xarmajatetxea.com](http://www.xarmajatetxea.com)





# Liburuak

KRITIKA

*Hiri gorritik.*  
Asier Serrano.  
Elkar  
12 euro.



Helduen literatura

Igor Estankona

## Harrotasuna

HASIERAN Asier Serranok harrokeria jarrera bat hartu duela iruditu zait. Leonard Cohenen arrandikeriaren –“segi arrau-nean ibaian gora, maitea. Nik ez zaitut abandonatuko”– eta rap kantarien zabarkeriaren arteko –“zaindu zaitez laztana”– tonu distantzarekin hasten da *Hiri gorritik*. Baina liburuak harrotasunerantz egiten du gero, leundu egiten da hizkera apatikoa, eta eibartarrak maitasunari buruzko beste lezio bat uzten digu, bere hitz terrible horiekin. Ondo etorri, atzera be, emakume biluzi eta gizon beldurtien unibertsoa, larruzko jakak aldean dabilzan kantari xamurren letretara, sentimendu eder eta irudi bortitzak nahasten dituen Asier Serrano itzuli delako, finean: zinismo eta apaltasunaren nahaste perfektu horretan erabiliko zaitu berrogeita bederatziz piezatan zehar.

Castillo Suarezek hitzaurre labur bikainean dioen legez, hiri gorrian ezagutu genuen elkar. “Gazteak ginen artean, eta hiri ezezagunaren geratuko ginela uste genuen, biok elkarrekin. Hitz egin genuen bizitzaz, heriotzaz eta maitasunaz gainontzeko guztia sobran zela uste genuelako”. *Bada hiri gorri bat* (Elkar, 1997), *Picassoren zaldia* (Elkar, 2007) eta oraingo hiri gorri honen artean, izan ere, eten ez den hari bat dago, hirurogeita hamarrekoko hamarkadan jaiotako poeten soinu banda entzuten da atzetik.

Asier Serranoren poemak leitzea da ametsak errepasatzea. “Ezkontza” eta “arma” eta “bihotza” eta “larrosa” eta “bakardadea” bezalako kontzeptuak ahapaldi berean sartzeko kapaz den mugimendu estetiko bateko idazle gailena oraindik badabilela ikusteko aukera eskaintzen du liburu honek.

*Hiri gorritik* Picassoren zaldia baino hobea da, eta *Bada hiri gorri bat* aurreko biak baino askoz hobea begitandu zait, eta orrialdeak pasatu ahala otu zait Serranoren jariora ez dela etengo, irudimenak bizi duelako idazle hau. Narratiban baino askoz presenteago dago, gainera, bere berba poesian: korapilatsua da, baina erraz ulertzen dugu; poemek ez daukate ia esanahi logikorik, baina ederto adierazten dute adierazi beharrekoa. Epikaren eta poeta erromantikoen amodio ilunaren arteko hiri gorri gehiago etorriko direla badakigu, honenbestez. Hiriok behar ditutala ohartu naiz orain, beharbada. Batzuetan denok behar izaten dugu era honetako artea: buruak atseden hartzen du, eta bihotza hasten da irakurtzen. ■

## Bidaia hegaka

Anna Castagnoli eta Gabriel Pachecok landutako ipuinak 2009ko Irudidun album onenari Issac Díaz Pardo saria irabazi du. Irudimen handiko haurra dugu protagonista. Itsasontzi erraldoia eraiki nahi du itsasoan ibiltzeko, eta nahiz itsasontzia izan, hegan ere egin nahi du tramankulu berarekin. Ur azpian eta lur gainean ibiltzeko esperantza ere badu.



*Bidaia handia*  
Anna Castagnoli &  
Gabriel Pacheco.  
Txalaparta.  
35 orrialde.  
12 euro.

Haurrak bidaia handia prestatu eta egingo du. Gerran dauden herrialdeak igaroko ditu, animaliak salbatuko ditu... eta hegaka dabilela abentura ugari izan ondoren etxera itzuliko da. Heroi gisa itzuliko da. Bidaia mundua eta bere burua ezagutzeko balioko dio. ■

## Goya pintorea haurrentzat

*Goya eta haren kapritxoak* du izenburu Txertoa argitaletxeak plazaratutako liburuak. Esteban Rodríguez Serranok idatzi eta Miren Arratibelek itzultako liburua bederatziz eta hamabi urte arteko haurrentzako da. Txertoa pertsona ospetsuen biografiak egiten ari da haurrentzako eta horietako bat da Goyarena. Pintorea txikitan ibaira igelak harrapatzea nola joaten zen kontatzen du liburuak eta nola oso garbi zeukan egunen batean erregearen pintore izatera iritsiko zela. Gortera ailegatutakoan nahasmen handia aurkitu zuen, han baitzebiltzan aurrera eta atzera zerbitzariak, dukeak, printzesak eta beste. Lanak izan zituen hango iskanbilak antolatzen. ■



*Goya eta haren kapritxoak.*  
Esteban Rodríguez.  
Txertoa.  
153 orrialde.

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**A shake in calm water.**  
Audience.  
Bidehuts.  
Iraupena: 47'11".  
10 euro.

## Klasikoena menderatuta, zirrikituetatik barrena

ZUR ETA LUR gelditu naiz Gernika eta Busturia aldeko beterano hauen azken aurreko lana entzuterakoan. Taldea hasi zenetik, aspaldi, galduta nituen; eta ondo heldutako boskotea aurkitu dut, uste baino ildo klasikoagoan, baina hala ere esperimentatzen. AEBetako sustraletan, country, rock eta bluesean egiten dute igeri, baina Argentinako eta Balkanetako erritmoe-tara zein kutsu latinoagoak dauden hondarretara ere heltzeko gai dira.

Jazza ere ez dago beraien uretatik urrun, berdin dio saxoa edo pianoa badute lagun; eta intentsitateekin eta giroekin ere ederto esperimentatzen dute. Horren adibide garbiena da taldea akustikoan ikustera joan eta perfektioetik, soinu gardenenetik, abiatuta nola hazi eta okertzen doan. Ea bada, *Amerikanoak* filmaren soinu bandarekin zer iradokitzen diguten!

[www.myspace.com/weareaudience](http://www.myspace.com/weareaudience)

## Audience

## «'Eusko gudariak' abesti bikaina da, Euskal Herriko 'Blowing in the wind'»

Zerk eragin diezaioke taldeari "dardara bat ur bareenean"?

Hainbat gauzek eragin dezakete dardara, bizitzaren parte gehiena dardararekin alderatzen da. Hala ere, disko honetan ur bareetara heldu garen ideia gailentzen da, badaukagu gure soinua eta abestiei aurre egiteko gure era, bostok uler dezakegun lengoia propioa, eta horretaz baliatuz egiten diegu aurre eta sortzen ditugu dardarak.

**Distortsio eta dezibelioetatik at, sonoritatearen gardentasunak erakartzen zaituzte?**

Guk ez daukagu hain gardenak garen ideia hori, alde basati bat ere badugula pentsatzen dugu, non perfektioetik urruntzen garen. Zuzenean aurkezten dugu gure aurpegi



hau eta gure erronka da alde hori diskoan isladatzea.

**Nolako erronka izan da *Amerikanoak* filmaren soinu banda egitea?**

Oso aberasgarria. Gure musikak beti izan du kutsu zinematografikoa. Aurretik antzezlan zein film laburren bati musika jarri diogu, baina film luze baterako musika originala sortzea aspalditik eskatzen ibili garen proiektua izan da. Gainera, lagunen proiektua da. Irudiek eta

musikak joan eta etorriko bidaia planteatzen dute, joana, euskal emigranteak bizi berri baten bila egindako bidaia, bueltako bidaia AEBetako eraginak jota Gernikako bost lagunek sortutako musikak islatzen du.

***Betiko* kantuak iluntasun eta intentsitate karga badu ere, abesteko eran eta melodiatan**

**Iparraldeko folka gogora ekarri dit...**

Ez zara horretan erreparatu duen bakararra... Ez daukagu hain argi, baina hain da txikia musiken arteko distantzia... Edozein kasutan *Betiko* abestia oso berezia eta bitxia da, abesti psikodelikoa. Euskal folklorea geure parte da eta gauza bikainak aurkitzen ditugu bertan. Adibidez, bertsoak, poesia, musika eta inprobisazioa nahasten ditu. Bestalde, *Eusko gudariak* abesti bikaina da, Euskal Herriko *Blowing in the wind*. ■

# Ezpalak

JON TORNER

## Aldundiaren menpeko Bizkaiko museoak, BizkaiKOA izenpean

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN menpe dauden hamar museoek (Omako baso margotua, Santimamiñe, Itsas museoa...) osatuko dute BizkaiKOA izeneko enpresa erakunde publikoa. Batzar Nagusiek onartu zain dagoen egitasmoak hamar museo horien jarduna bateratzea du xede, baita Bizkaiko gainerako museoekin elkarlanean aritzea ere, bi aldeek hala nahi dutenean. Oposizioko alderdiek eta hainbat sindikatur salatu dutenez, Foru Aldundiak Bizkaiko museoak pribatizatu nahi ditu. Josune Ariztondo Kultura diputatuak, ordea, halakorik ez dela gertatuko esan du. Bere hitzetan, aurrerantzean ere Foru Aldundiak ordainduko die museoetako langileei; "euren eskubiak mantenduko dituzte", adierazi du.

## SAREAren batzar nagusia Santurtziko Antzerki Jaialdian

SANTURTZIKO (Bizkaia) Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren 31. edizioa urriaren 9tik azaroaren 20ra bitartean egingo da. Opera, dantza eta antzerki ikuskizunez gain, eszenarako Euskal Herriko musika egile profesionalak zuzendutako topaketa egingo da, *Musika eszenikoak* izenburupean. Topaketak Deabru Beltzak antzerki-konpainiak antolatu ditu Fundación Autor eta SGA Eren laguntzarekin. Jean Louis Cortez izango da hizlaria eta Fran Lasuen koordinatzailea. Horrez gain, Oriol Jauregian Euskal Antzoki Sarearen (SAREA) batzar nagusia egingo da. Euskadiko udal antzokietako ordezkariak bilduko dira bertan.

**Pierre Bidart** antropologo baigorriarra hil zen hilaren 10ean, 63 urte zituela, Sofia hirian (Bulgaria). Bi urterako joana zen hara, Frantziako enbaxadak agindutako lan bat egitera. Bidart Bordeleko unibertsitateko irakasle zen eta orain urte batzuk PSko hautetsia izan zen. Antropologo baxenafartarra Euskal departamenduaren aurka agertu zen. 2006az geroztik Udako antropologia unibertsitatea antolatzen zuen.

● **José María de Orbe Klingenberg zinegileak *Eus-konews & Median*:** «Arazoa hau da: industriak zinemaren difusio-kanal guztiak bereganatzen ditu, eta, horrela, hizkuntza hegemoniko, inpersonala eta atzeratua inposatu nahi du. Espainian eta munduan egiten ari diren funtsezko obra asko ezin ditu ikusi publikoak. Hori herritarren askatasunari egindako murrizketa galanta da. Eta egoera hori estatuak zinemarekiko egiten duen politikarekin oso kontraesan-korra iruditzen zait, kultura-produkzioa delakoan diruz laguntzen baitu. Zertarako finantzatzen duzu gero ezin baduzu haren bideragarritasuna bermatu?».

● **Juan Bas idazleak *Aldaketa 16* aldizkarian:** «Ustedut *On Kixote* beti izan dela umorezko eleberri bat. Beraz, besteen azpitik dagoen genero gisa hartzeak ez dauka zentzu handirik eta harritu egiten nau. Nolanahi ere, umore ingelesa dago beste guztien gainetik. (...) Argitaletxe handietan antza, departamendu komertzialak finkatzen ditu jarraibideak. Umorezko literatura saldu egiten da. Bere gutxiespena kritikaren sektoretik dator batez ere».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)



**TALLERES  
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatua

**Talleres Mitxelena, S.Coop.**

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • [info@talleresmitxelena.com](mailto:info@talleresmitxelena.com)

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)

# Abarrak

## Zinemaldia 2010

### SAIL OFIZIALA

GORKA BEREZIARTUA

## Omnia sunt communia!

XVI. mendeko anabaptisten lema aintzat hartu du epaimahaiak: dena denentzat. Eztabaida luze eta aspergarria izan genezake hartutako erabakiaz, baina demokratikoa izan denik ezin uka. Hainbeste, ia inor ez dela geratu saririk gabe.

Peter Mullanen *Nedsentzat* urrezko maskorra: irudi du Paskaljevicek eta konpainiak zaku batean film guztien izenak sartu eta bat atera dutela. *Neds?* Ba, *Neds*. Nahiz eta ezer berezirik ez dakarren film soziala den, bat gehiago; nahiz eta metraje erditik aurrera erabat galtzen den.

Justuagoa da film horregatik Conor McCarronek irabazi duen zilarra; baita *Pa negre* ekoizpen kataluniarreko lana-

rengatik Nora Navasek eskuratutako emakumezko aktore onenaren saria ere. Raul Ruizen zuzendari onenaren saria zer esan: gaiztoegia dateke oharra, baina baten batek pentsa lezake txiletarraren minbiziak eragin duela sariztatzea; hobe maskor bat garaiz, omenaldiak berandu eta gaizki antolatzea baino.

Sari txikiak ere, bakoitza etxe banatarra: Herrialde Katalanak, Maroko, Norvegia... Ikusleak hotz samar utzi dituen Sail Ofizialarentzat hau zen, apika, palmares posible bakarra. Eta paradoxikoa da: gehien konbentzitu nauen filma, Gilles Paquet-Brennerren *Elle s'appelait Sarah*, ezer gabe geratu da. Lehiaketaz kanpo zegoelako. Bestela...



Peter Mullan urrezko maskorrarekin.

### ZABALTEGI

MIKEL GARCIA


## Publikoa tontoa da

Eta horregatik ez du ulertu/baloratu nire obra handia. Kultur ezjakintasun orokorraren aitzakia hartuta justifikatu ohi du hainbat zuzendarik bere filma ikusleen gustuko ez izatea. Ados, jaialdietako zinema desberdina izaten da, ez hain komertziala eta mastekatua, eta arreta eta ahalegina eskatzen dizkio ikusleari, baina zabarkeria franko ere egin da esperimentazioaren izenean. Horregatik, zein ona den kritikak eta publikoak bat egiten dutenean, kalitate-rik gabeko obrak ez baitu historian luzaro iraungo, baina ikuslerik ez duena ere ez da urrun iritsiko.

Aurtengo Zabaltegi batasun hori lortu du orokorrean: Publikoaren Saria jasotzeko hautagai izan diren hamabi filmetatik bederatziri 7 notatik gora eman

diete ikusleek. Aldi berean, film horiek goraipatu egin ditu kritikak, oro har. 8,879 notarekin, *Barney's Version* izan da publikoaren garailea. *Poetry* fina, *Tuan Yuan* bitxia, *Carancho* basatia aurretik jarriko nituzke nik, baina *Barney's Version* ere gustatu zait: Barney Panofsky bizizale eta alkoholikoaren gorabeherak konstatzen dizkigu komedia dramatikoak, eta aktoreen lana bikaina da, batez ere Paul Giamatti protagonista handiarena.

Bestalde, aipatzekoa da dokumentalek aurtengo izan duten protagonismoa. Eskertzekoa, ondo landutako obra eder-rrak ikusi baitugu, errealtatea hizpide: hala nola, *Guest* bidaiaria, Bin Ladenen bizkartzain ohia protagonista duen *The Oath*, eta Saturrarango kartzelari buruzko *Debekatuta dago oroitzera* mingotsa.



*Barney's Version*, publikoaren gustukoena.


[www.argia.com/zinemaldia-2010](http://www.argia.com/zinemaldia-2010) helbidean, aurtengo Zinemaldiko pelikulen kritikak ikusgai.

# Ihesi

PATXI ZUBIZARRETA

Argazkiak: Alex Larretxi

Euskal Herria ezagutuz:  
**Bastida (Araba)**



## Unetxoak

Ez duzu ohikoa, irakurle, esku arteko Ihesi hau. Beti bezala, Euskal Herriko eskualde bat ezagutzeko aztarnak emango dizkizugu, bai, baina oraingoan narrazio baten barruan aurkituko dituzu aztarna horiek. Patxi Zubizarretaren lumak ondu dizu ardo zaporea duen ipuin hau. Ongi etorri Errioxara.



JOAN ZITEZKEEN Iruña-Veleiara Historian atzera egitera, joan zitezkeen Añanako paisaia estrainioa deskubritzera, edota, gatzage-tan barrena, Valderejoko parke naturalera, baina Bidaiariak, Iruña Okan eraikitzen ari diren makrokartzela saihestearren, errepide nagusia bazter utzi, eta Urizaharrerraino eraman zuen adiskidea, Trebiñun gaindi. Ez zekien zein zen Toloño mendirako bidea; soil-soilik zekien, handik jaitsitakoan, Bastidan beste adiskide bat izango zutela zain, eta gero batera jarraituko zutela.

Autoan Trebiñuko auzi herdoil-dua eta udako sutea aipatu bazituzten ere, oinez zihozazela Bidaiariak Manu Leguinecheren *El club de los faltos de cariño* liburua goraipatu zuen. “Haren ustez, ez kexatzeak eta jendeaz gaizki esaka ez aritzeak gartzetu egiten du”. Adiskideak gaineratu zuen orduan ulertzen zuela zergatik topatu zuen Bidaiaria horren gartzeturik eta ea

axola zion liburua uzteak. “Mesa-notxeko liburua dut, baina lagunei buruz ongi hitz egiteak ez dakar haiekin fidatzea...”.

Hego haizea zebilen, gozo, eta mendizaleak oharkabeen zihoazen gorantz. Bide seinaleak bazeuden, egon, baina haiek senari jarraitzen zioten, hegorantz, noiz edo noiz igarotzen ziren hegaztien gisara. Luze gabe, Toloño gailurraren alboan, XIV. mendean eraikitako santutegian nahiz elurtegi ibili ziren ikusmiran. Ipar aldera, harizti eta pagadien urre kolorea miretsi zuten eta, hego aldera, oster, Ebro ibaiak zeharkatzen zuen tapiz ardo kolorea.

“Behin, mahai-inguru batean, Zumeta, Ameztoi eta Goenaga pintoreak elkartu zituzten; hizketan hasirik, zezelka eta estropezu-ka ekin zioten hirurek ere, eta onartu zutelarik ezin zutela beren pintura azaldu, hitz koloregabeak zirela haienak, bertan behera utzi zuten ekitaldia”. Adiskidea jabetu

zen, zeharka, Bidaiaria isiltasun eske ari zitzaioela, baina mihia txuloan ezin atxikirik, laster aitortu zion damu zuela parapentean hegaldatzen ez jakitea, hegaztiago ez izatea, alegia. Bidaiariak, postal zabal hartan, Lantziegoko eliz dorrea sinalatu zion, eta sakelako telefonoan bila ibili zen segidan. “Ez zara bakarra”, hasi zitzaion, eta bilatzen zuen argazkia topaturik, “hona hango eliz dorreko oroitarria: *El día 10 de febrero de 1881 al tocar a la Santa Misión fue lanzado a la calle por la campana Jerónimo Ugarte de 11 años de edad, y no recibió lesión alguna*”. Eta, hala ere, Adiskideak bere baitan gorde zuen Bidaiariak ahoberokeriatzat hartuko lukeen gertakaria: haur denboran, laugarren solairutik jausi zen eskailera zulotik, “*y no recibió lesión alguna*”; harrezkero erasaten dion bertigo ikaragarria aipatu gabe, *Entre copas* filma goraipatu zuen berak. “Kaliforniako mahastietan, bi adiskide, bat ezkontza bezpe-



ran... Badut DVD bat, baina lagunei buruz ongi hitz egiteak ez dakar haiekin fidatzea...”.

San Gines parkera heltzean, Bastidarrak imintzioka hartu zituen. “Gazteturik ikusten zaituztet!”. Adiskidea Bidaiairiari aurreratu zitzaion: “Badakizu, jendeaz ongi mintzatzeak eta ez kezatzek hori du on”. Eta ardoak dohain hori areagotuko zielakoan, Erremelluriko upategietara jo zuten. Hala ere, Bastidarrak lehenago autoa pista bazterrean izkinatu, eta antzinako Erremelluri herrixkako nekropolia erakutsi zien, eta muztioa lortzeko dolare errupestre bat.

Upategietan, Bidaiairiak kontu gutxi egin zion hastapeneko bideoari; gerokoak pizten zion jakin-goserik handiena. Alabaina, harri-duraz jabetu zen ardoaren prozesu geldo eta lantsuaz; harritu egin zen jakitean, hango upeltzarrak zain-tzeko, Bordeleko eta Asturiasko upelgileak ekartzen dituztela: “Baina haien ondorengoek jadanik

ez dute lanbide horrekiko atxikimendurik, eta hamar bat urteren buruan guk geuk ere altzairuzko upelak erabili beharko ditugu...”. Eta haren harridurak goia jo zuen Ardoaren Hilerritzat zuten soto ilunera heldu zirelarik: “Hemen gordetzen ditugu urtabe edo uzta bakoitzeko botila bakan batzuk, nola zahartzen diren ikusteko”. Adiskideak, trufaka, ahoz gora esan zuen bera han geratuko zela, eta ahopean: “Gidari xarmant honekin, noski”.

Bisitaldiaren amaierako dastaketan, Bidaiairia ez zen ausartu esatera gero eta gehiago gustatzen zitzaiola zuria, edo urteko ardo ona besterik gabe, zeren Erremellurin ez urtekorik ez ondurik, erreserba eta erreserba handiko ardoak baino ez baitira egiten. Gainera, berak lehenbailehen joan nahi zuen hara: kaperira irrikatura. Oinez zihoazela, Bidaiairiak erai-kin baten atariko euskarazko idazkunari erreparatu zion: “Edozein


txoriri eder bere habia”. Bidaiairiak bazekien baselizan sailduei buruzko sei artelan topatuko zituela, eta paradisuari buruzko imajina apokrifo bat, berak bestorduz Donostiako KMn ikusiak hain zuzen ere, baina haiek berezko kokalekuan ikusteak hunkitu egin zuen. Aldarean, hantxe zegoen San Bizente –Bizente Ameztai pintorearen aurpegi irrisu berare-

**SOLOZABAL**  
*Eskura ezazu teorikoa 5 egundatan  
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

[www.solozabalautoeskolak.es](http://www.solozabalautoeskolak.es)



Ezkerrean: Erremelluriko basiliza, mahasti artean. Bastidako erdigunetik oso hurbil daude Erremelluriko upategia, nekropolia eta basiliza bera. Eskuman: Hechicera trikuharria, Bilarren, Bastidatik 25 bat kilometroa.

kin—, alboetan San Gines, Santa Sabina... —senitarteko edo ezagunen aurpegiekin denak ere—, eta hantxe paradisua: tximino gorbata-duna, sugea, Adan eta Eba; imajina horixe koadroan handiturik ageri zen, eskuin aldeko telebista gisako batean, eta aparailuaren Kixmitron markak irri firfira eragin zien, eta erlojuak 06:59 markatzen bazuen ere, gidariak adierazi zien ez zela ordua, baizik eta gure lehen arbasoei paradisuz gozatzeko geratzen zitzaion denbora. “Antza, Adan eta Eba zazpi orduz baino ez ziren egon paradisuan”.

Kaperatik irten aurretik, Bidaiariak ozen irakurri zuen atearen gainaldeko idazkuna: “Salmoak eta ardoak gizonaren bihotza zabaltzen dute”, eta denak bat etorri zirenez, beste kopa bat hartzera itzuli ziren. Harantzean, Bidaiaria Atxagari irakurritako esaeraz oroitu zen: “Egun eguzkitsuetan ingurumari honek italiarra dirudi, eta euskalduna, aitzitik, euritsuetan”, edota Bizkaiko Arratzutik Guadalajarako Brihuegara bizitzera joan zen Leguinecherenaz: “Horixe bilatzen

nuen zirimitik garira jaitsi nintze-nean”. Baina, batik bat, haren liburu-ko beste esaldi bat zuen gogoan: “*La vida son raticos*”. Zinez, halako lagunartean, halako artelan ederrekin mundualdia piztu egiten baitzen, unetxo batez aherentzi egiten baitziren bestelako nahigabe eta zorigaitzak.

**Bidaiaria paisaiaren okreak hunkitua  
zihoan, eta adierazgarria iruditu  
zitzaion Errioxa zein gutxi islatu den  
gurean: Luisa Etxenikeren “Vino”,  
Julio Medemen “Tierra”, eta horiek  
gastelaniaz**

Autoan sartzea eta kantuan hastea bat izan zen. *Han venido (bis), Bilbotik andra bi; han bebido (bis), azunbre bat t’erdi; buena ración es esa andra bientzako; buena pareja es esa txerri kortarako*. Alabaina, Bidaiaria paisaiaren okreak hunkitua zihoan, eta adierazgarria iruditu zitzaion Errioxa zein gutxi islatu den gurean —Luisa Etxenikeren *Vino*, Julio Medemen *Tie-*

*rra*, eta horiek gastelaniaz—; eta berritu egin zitzaion bere betiko irudipena, alegia, urrunera joan gabe ere, bidaiatzean denborak beste neurri bat hartzen duela, esperientziak eta sentipenak ugaltu egiten direla.

Bazkaldu aurretik, ‘Historian atzera egin zuten berriro ere, 3.400 urte inguru izan arren, orain dela 75 urte deskubritu zuten Guardia alboko La Hoya hirixkan. Behinolako etxe baten berreraikuntzak nahiz orduko lanabes, arma eta edergailuak ikusgarriak iruditu zitzaizkien, baina batik bat Alberto gidari gasteiztarraren jardun sutsuak xarmatu zituen. Erasoaldi batean hildako gizonaren eskeletoa —bururik ez eta gezi bat bularraldean— ikusi zuten, edota jakin zuten gerlari garaituei burua moztu, eta hura apaingarritzat erabiltzeko usadioa zutela lantza, zaldi edo etxe atarietan, eta gerlariak erraustu egiten bazituzten ere, haurrak etxean bertan ehortzen zituztela. Eta Bidaiariari berritu egin zitzaion, halaber, bere baitan udazkena eta heriotza uztartzen dituen sentipen asaldagarria.



Ezkerrean: Bastida, Errioxako ardoan murgiltzeko atea, 2008ko liburu baten izenburuari –*Labastida. La puerta de entrada al vino de la Rioja*– kasu egin behar badiogu. Eskumako argazkian, upelak Erremellurin.


Bazkaltzeko Judit de Valdelana ardo ondua hautatu zuten: “Osa-suna ardoa bitarte. Ardoa da: hodi zabaltzailea, lasaigarria, diuretikoa, koipe absortzioaren laguntzailea, kolesterol onaren estimulagarria. Hainbat gaixotasun galarazten edo uxatzen laguntzen du: alzheimerra, minbizia, infartuak, patologia kardiobaskularra, begi gaixotasunak, hipertentsioa”. Kopak kopari, une batez Bastidarrak kargu hartu zion Adiskideari, zerbitzariari sobera hurbiltzen ari zitzaiolakoan, baina honek, orduan: “Ez kezkatu, aspaldi honetan hainbeste zahartu naiz,

zalantza baitut ez ote naizen eme bihurtu”.

Bazkari oparoa izan zen, eta argi geratu zen ardoak, etiketako onurez gainera, bazuela bihotza zabaltzeko dohaina. Baina ustekabekoa ere suertatu zen, zeren, Bidaia-ria txokolate beltza olio eta gatzarekin dastatzten ari zen bitartean, Adiskidea, komunetik etorri zen batean, honela mintzatu baitzitzaien: “Sentitzen dut, baina bidaia elkarrekin amaitu beharko duzue. Zerbitzariarekin hitzordua dut. Guardia alboko hezeguneak erakutsi behar omen dizkit, eta Hechicera trikuharria...”. Bidaia-ria irriz karkailaka hasi zen,

berak ere ikusia zuen *Entre copas* filma, eta barrea denengana zabaldu zen. Beste botila bat eskatu zuen, zuria oraingoan. Aspaldian, bazkalostean ez zuen kopakorik hartzen, eta ardoarekin jarraiturik, apenas izaten zuen biharamunik. “Biba zu!”, esan zion Adiskideari, eta topa egin zuten beraien alde. “Kariñoa bilatzen dutenen alde, klub bat egin dezagun!”, gaineratu zuen Adiskideak. Bidaia-riak, gero eta hitzunago, unetxo- en teoria ekarri zuen hizpidera, baina eztabaida piztu zitzaien, mundu- aldian unetxo horiek, guztira, zazpi ordu osatzera iristen ote diren... ■

**Descenso de Cañones/Espeleología**    **Arroila Jaitsierak/Espeleología**  
**Puenting/Escalada/Raquetas de nieve**    **Zubi saltoa/Eskalada/Elur erraketak**  
**Cursos técnicos/Viajes de aventura**    **Ikastaro teknikoak/Aventura bidaiak**  
**y mucho mas... eta askoz gehiago...**







**www.inguruabentura.com**  
**info@inguruabentura.com**

**Tel: 635 748 948**

# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA


## Olatuen energia sare elektrikorako

ERRESUMA BATUKO Hayle hiritik 16 kilometrora, Kornualleseko itsasertzean, Wave Hub parkea eraikitzen ari dira, itsaso barruan 300 metrora dauden olatuen energiaz baliatuko dena. Dagoeneko hamabi tonako konektorea instalatu dute 55 metroko sakoneran; konektore horren bidez parkean sortzen den energia Erresuma Batuko sare elektrikora konektatuko da.

Parkean lau enpresatako sistemak instalatuko dira: Ocean Power Technologies-en eta WestWave-ren buiak, Fred Olsen-en olatugailua, Pelamis izenekoa, eta aire-ehizarako Oceanlinx-en sistema.

Itsasoan kokatutako konektorearen eta lehorreko sare elektrikoaren artean konexioa lur azpitik joango den 25 kilometroko kable baten bidez egingo da. 80.000 tona harkaitz behar izango dira hori estaltzeko.

Produkzio lehen unitateak 2011n jarri nahi dituzte abian; sistemak emango duen potentzia hogeitak MWekoa izango da. Proiektuaren inbertsioa 50,4 milioi eurokoa izatea aurreikusita dago, eta energia elektrikoa ekoizteaz gain hainbat sistemaren abantailak eta desabantailak neurtzeko balio izango du.



## Digestiorako hodia garunaren ispilu

Inserm Institutuan (Nantes, Britainia) oso aurkikuntza interesgarria egin dute Parkinson gaixotasunari buruz: koloneko biopsiak eginez, garuneko hainbat gaixotasun detekta daitezke.

<http://ttiki.com/16778> (Frantsesez)

## Bizia mikaren artean hasi ote zen?

Non hasi zen bizia? Galdera klasikoak badu orain beste erantzun bat. Kaliforniako Unibertsitateko Helen Hansma ikertzaileak 2007an landutako hipotesia osatu berri da. Horren arabera, bizia liburu baten gisa ordenatuta zeuden mika orrien artean hasi zen.

<http://ttiki.com/16779> (Gaztelaniaz)

## Europako ordenagailurik azkarrena

FRANTZIAKO IKERKETARAKO MINISTERIOAK eta Bull enpresak hitzarmena egin dute ordenagailu bat garatzeko, entsegu nuklearrek, aldaketa klimatikoaren modelizazioek, proteinen inguruko azterketek, erreakzio kimiko konplexuek eta izarren sorrerarako eszenategiek dituzten gero eta behar handiagoei erantzungo diena.

Ordenagailuak 1,6 petaflop-eko ahalmena izango du, hau da, segundoko 1.600 bilioi eragiketa egiteko ahalmena. Orain arte European izan den ordenagailurik azkarrena Alemanian dago, eta 825,5 teraflop-eko ahalmena du: 825,5 bilioi eragiketa segundoko. Munduan dagoen ordenagailurik azkarrena, berriz, JAGUAR estatubatuarra da, eta 2 petaflop-eko ahalmena dauka.

Aipatu beharra dago Frantziak 80 milioi eurotik gora inbertitu dituela 2007-2010 epean, ordenagailu azkarren alorrean.



## Beira xafla bat bafle bihurtu dute

Greensound Technology sozietate estatubatuarrek hariarik gabeko baflea sortu du. Baflearen oinarrian dagoen sorgailu batek bibrazioak transmititzen dizkio beirazko xaflari, eta hark bibrazioak soinu bihurtzen ditu. Asmakinaren komertzializazioa bidean da jada, baina salneurria ez dakigu oraindik.

<http://ttiki.com/16780> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza  
interaktiboa  
[www.iametza.com](http://www.iametza.com)  
T.943 37 67 16

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Haserre

PIRANGIKO HONDARTZAKO Cajueiroa, *Anacardium occidentale*, bere 8.000 m<sup>2</sup>-ko itzalarekin galanta sentituko da, eta 122 urteko barrea egingo die aldamenekoei. Ez du, ordea, gajoak, kontinente bereko ipar puskan bizi den Pandoko (Utah, AEB) lertxundiaren berri. Mundu honetan ezagutzen den izaki handiena omen da lertxun amerikar hau, *Populus tremuloides*. *Populus tremula* gure lertxunaren tankerakoa da, baina ipar amerikarra izatea. 43 hektarea inguruko saila bizi du, 430.000 m<sup>2</sup>. Lertxun hau itxuraz lertxundia da: 47.000 bat zuhaitz dira sustraije beretik sortuak, klon sendi bat, alegia.

Irudiz baso bateko zuhaitz multzoa dena, ezaugarri genetiko berak dituzten klonak direla 70eko hamarkadan jakin zen. Harrez gero botanikari eta biologoen pagotxa da. Ikerlariak ditu izurri lertxun honek. 6.000 tona biomasa du, batez beste enbor bakoitzak 130 bat urte ditu, baina denen ama izan zen arbaso hura duela 80.000 urtekoa zela diote. Bizidun zaharrena eta handiena omen.

Sustraiak zabaldu ahala altsumak bota eta enbor berriak hazten dira, denak arbaso ama baten berdinak. Sexurik gabeko ugalketa da, ez dago loreen beharrik; ez lore, ez fruitu, ez hazi. Landare ugari



DAVID WINNIE-CC-BY-SA

Pandoko lertxundia, edo lertxuna, Utah-n.

darabil ugaltze eta kolonizatze bide hau, hurbilekoen artean: *Fragaria vesca* marrubiak, *Robinia pseudoacacia* sasi-akaziak, *Acacia dealbata* mimosak, *Iris sp.* ostargibelar jendeak, *Solanum tuberosum* patatak, *Ficus carica* pikondoak... Zabaltzeko era honek abantaila batzuk baditu, sute baten ondoren erraz berritzeko aukera, enbor bat hiltzen denean beste berdin batek haren lekua hartzea, kanpoko beste landareak ezin sartzea...

Perretxikoak ere lurpeko mizelioa zabalduz handitzen dira eta izugarritzko sailak hartzen dituztenak ere ba omen dira. Baita itsas alga klonek osatutako gorbeldi haserreak, itzelak. Mediterranioko Posidonia algarenak 100 hektarea ba ote dituen diote.

## 5.000.000

Osasunerako Mundu Erakundearen arabera pestizida sintetikoen erabileragatik intoxikatutakoak bost milioi lagun dira. Alemaniako PAN, Pestiziden aurkako sareak dioenez, pozoitzera iritsi gabe, gai hauek buruko mina, goragalea, larruazala minberatu eta baita antzutzea, minbizia eta deformazioak sor ditzakete.



WWW.BRITANNICA.COM

**azkonobieta**  
**basogintza lanak**

baso-berritzeak  
kimatze lanak  
abereentzako itxiturak

© 943 694 554 / 656 720 607  
Goiballara · Azkonobieta Berri z/g  
20159 Asteasu (Gipuzkoa)

# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Pripiat, etorkizunik gabeko hiria

### Arrastoak

### Akelarre 400 urte eta gero



WWW.PHOTOART.ORG.UA



SURIN VAGYOK

Gizakiak duela ia 25 urte utzi zuen Ukrainako Pripiat hiria. Egun, erradiazioak landaredia bereziki indartu duela diote adituek, zuhaitzak eraikinen barruan hazteraino. Hala ere, egungo argazkietan oraindik eraikin handienak ikus daitezke, baita hiri mamuaren ikur bihurtu den noria ere.

SESB, EGUNGO UKRAINA, 1970. Pripiat ibai bazterrean izen bereko hiria fundatu zuten, Txernobileko V.I. Lenin zentral nuklearreko langileak eta horien senitartekoak bertan bizi zitezen. 10.000 biztanle inguru izango zituen eta Nicolay Ostozhenko arkitektoak Moskun garatutako printzipio triangeluarrean oinarritu ziren horien guztien bizitokia eraikitzeko. Printzipio horri jarraituz, hiriak espazio ireki eta parke asko zituen. Zirkulazio sistema berezia ere bazuen auto pilaketak saihesteko. Langile gehienak Kievetik zetozela jakitun eta hiri hartan arrosondo ugari daudela kontuan hartuta, biztanle bakoitzeko arrosondo bana landatu zuten. Gainera, Pripiatek SESB zaharreko klimarik epel eta atseginenetakoa zuen. Eta, hala, hiria oso azkar hazi zen.

Ezerezetik sortu eta hamasei urtera, 1986ko udaberrian, Pripiatek 49.400 biztanle zituen eta 33.000 arrosondo inguru. Urtero 800 bat haur jaiotzen ziren bertan eta beste 500 pertsona bertara bizitzera joa-

ten ziren, hiri berriaren ongizateak erakarrira.

Lehen hezkuntzako hamabost eskola zeuden eta bigarren hezkuntzako bost. Bi estadio, kultura jauregi bat, zinemak, arte eskola, 35 parke, 167 autobus, 27 taberna eta jatetxe, hamar gimnasio... Hiriak Sobietar Batasunean ezohikoak ziren zerbitzuak eta erosotasuna eskaintzen zituen. Horrek eragin zituen hiriaren hazkunde harrigarria eta sobietar herritarrek eman zioten ezizena: "Etorkizuneko Hiria".

Jolas parke bat ere eraiki zuten, noria eta guzti, baina ez zuten sekula inauguratu. 1986ko apirilaren 26an Txernobileko zentral nuklearreko laugarren erreaktorea lehertu zen eta Hiroshiman jaurtitako bonba nuklearrak baino 400 aldiz erradiazio gehiago igorri zuen.

Pripiateko ia 50.000 biztanleak hurrengo bi egunetan ebakuatu zituzten. Aurten 40 urte beteko zituen hiria adin nagusitasunera ere ez zen iritsi. Etorkizuneko hiriak, ordutik, ez du biztanlerik, ez posta koderik, ez etorkizunik.

AKELARRE: SORGINKERIAREN HISTORIA PIRINIOAN izenburuko jardunaldiak egingo dira azaroaren 4tik 6ra Iruñean eta Zugarramurdin, Logroñoko 1610eko fede autoaren laugarren mendeurrenaren karira.

Eusko Ikaskuntzak, Zugarramurdiko Udalak eta Nafarroako Gobernuak antolatutako hitzaldiak Iruñeko Nafarroako Museoa izango dira hilaren 4an eta 5ean. Egun horietan hainbat adituk sorginkeriak Euskal Herrian XIV. mendetik XVIII.era izan zituen nondik norakoak azalduko dituzte.

Jardunaldiok Gustav Henningsen ikerlaria omenduko dute eta, horrenbestez, azaroaren 6an, Zugarramurdiko Sorginkeriaren Museoa haren lanari buruzko hitzaldiak eskainiko dituzte. Eta jardunaldiak Henningsenek berak itxiko ditu "akelarre" hitzari buruzko solasaldiaren bidez.



FRANCISCO DE GOYA

# Lurralde antolamendua

## Ureztatu liteke baratzea zementuarekin?

Artezpideak, lurraldea antolatzen duten gidalerro nagusienak, birmoldatu egin behar ditu EAEko administrazioak. Hirigintza operazio ororen “manamenduak” eta ingurumenaren babeserako balizko aterpea dira. Birmoldaketa horrek, garraio azpiegitura handiak eta hirien arteko lotuneak lehenetsiko dituela salatu dute sindikatu eta gizarte kolektiboek.

URKO APAOLAZA

BILBOKO EUSKALDUNA jau-regian 2009ko azaroan egin-dako *Euskal Hiria* kongresuak apenas izan zuen lerro batzuetako tartea hedabide nagusietan. Kongresu horretan baina, hurrengo urteetako lurralde politika arautzeko gidalerroen zirriborroa aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak: Lurralde Antolamendurako Artezpideak (LAA). Besteak beste, plataforma logistikoei eta mugikortasunari garrantzi gehiago ematen die.

Egun indarrean dauden LAAk 1997an sortu ziren, EAEko antolaketa planen (sektorialak nahiz partzialak) erreferentzia gisa erabil zitzaizten. Udal batek polikiroldegi bat egin nahi badu, edo aldundi batek errepede bat, edo Jaurlaritzak aisialdirako natur parke bat, hori guztia egin behar du LAAetan jar-tzen duena kontuan edukita. Populazioa, turismoa, etxebizitza, hondakinak, ura, azpiegiturak, ingurumena... bakoitzari funtzionaltasun bat ematen die LAAek. Artezpideok ordea, oharkabeen pasa dira.

### Artezpideak berrikusteko ordua

LAAk zortzi urtean behin errebi-satu edo birmoldatu behar dira



DANI BLANCO


legez, eta Eusko Jaurlaritza horretan hasi da. Alfonso Sanz Lurralde Antolamendurako zuzendariaren esanetan, arrazoiak badaude birmoldaketa egiteko: “Gure lurraldearen estruktura ez da oinarrian aldatu, baina azken urteetan hainbat erronka sortu dira, LAAk idatzi zirenean ez zeudenak: aldaketa

klimatikoa, berrikuntza, hondakinaren birziklapena...”.

Oraingoz, *Berrikusketa* izeneko erreflexiorako txostena soilik eskura liteke Euskadi.net atarian –Bilboko kongresuan aurkeztutako bera–. Txostena Fundación Metrópolik egina da, Alfonso Vegara arkitekto entzutetsu buru den elkarteak. Vegarak badu esperientziarik arlo horretan, Espainiako hainbat erkidegotako lurralde gidalerroak idatzi izan baititu Taller de Ideas enpresaren bidez, tartean egungo EAEkoak. Bestalde, *Euskal Hiria Net* proiektuarekin 2006ko Hirigintzako Europako Saria jaso zuen Vegarak. Aurrekari horiek ikusita, adituek lupaz begiratu

diote *Berrikusketa*-ri, dokumentu horretan tankera hartu baitaiteke hurrengo LAAk zer filosofia izango duten.

Fundación Metrópoliren oinarritzko teoria “hirien mundua” da eta EAerako egindako proiektuak horixe islatzen du: Euskal Herria Milan-Lisboa eta Paris-Madrid



Berrikusketaren fluxuen diagraman "Hiriburuen Sistema Polinuklearra" ikusten da.

ardatzen "errotula" izango litzateke. Ondorioz, txostenak garrantzi handia ematen dio garraiorako eta logistikarako azpiegiturak garatzeari (AHT, superportuak, autopista berriak...). Horrez gain, konpetentzia "globalari" aurre egiteko, berrikuntzat eta "jakintza gizariteaz" hitz egiten du txostenak.

Dena den, Alfonso Sanzen arabera *Berrikusketak* ez ditu aurreko LAAk ordezkatuko, hauek "proposamen berriekin gaurkotu eta zabaldu" baizik. Esaterako, aurreko artezpideetan ere definitzen zen "Hiriburuen Sistema Polinuklearra" eta oraingo birmoldaketak figura hori indartuko du, baina era berean, erdi-mailako herriak ere bultzatuko ei dituzte artezpideek eta modu horretan "orekatuago, anitzago eta interkonektatuago" egongo den "hiri-eskualde polizentrikoa" sortuko da, Sanzen esanetan.

### Kritikak berrikuspenari

Gizarte kolektibo, alderdi eta sindikatuek euren iragazia pasa diote *Berrikusketa*-ren hitz eta kontzeptu urbanistikoei. Euren ondorioa da

artezpide berriek hiria bultzatuko dutela eta azpiegiturak lehenetsi. Urbanistikaz aritzen den *Hiripublika* blog kritikoa honela idatzi dute Hiriburuen Sistema Polinuklearrak: "Hiriburuak, sistemaren erpinak, jarduera nagusien jatorri eta helmuga bihurtzen dira, eta obsesioa orduan erpinen arteko distantzia murriztea da". Blog honetako kideek azaldu dutenez, ez 1997ko artezpideek, ez oraingo birmoldaketak, dituzte kontuan hartzen eskualdeak egitura organiko moduan, eta hirien arteko lurraldea "trantsizio-eremu" soil bilakatu dute.

Hain zuzen, EHNE sindikatuak artezpideen birmoldaketari egindako kritika nagusietako bat da nekazal lurraldeak "aisialdi" gune bilakatuko dituela: "Lurralde osoa zementu eta porlanez beteko dute —dio Iratxe Arriola sindikatuko abokatuak—. 240.000 hektarea ditu-

**Lurralde artezpideen birmoldaketak merkatu "globala" aurreikusi du "lokalaren" gainetik**

gu nekazaritzarako, eta hori baino lau aldiz gehiago beharko genuke. 2000. urtean 26.000 hektarea artifizialdurik zeuden eta 2009an 56.000 hektarea ziren... Hori bateraezina da behar dugun elikadura ereduarekin". Arriolaren esanetan herri txikiak aterako dira kaltetuen LAA hauekin, "sistema polinuklearrak nortasun galera handia ekarriko die". Baina EHNEren kritikak ez dira horretara mugatzen. Sindikatuak azaldu duenez, LAAak birmoldatu dituztenek merkatu "globala" aurreikusten dute merkatu "lokalaren" gainetik, eta erregioen arteko fluxua handituko denez, "garraio azpiegitura berriak eraiki beharko dira, gero eta trinkoagoak eta gaitasun handiagokoak". EHNEk adibide gisara jartzen du Bilboko aireportuarentzat proposatzen dena. Vegararen txostenak *hub*—transferentzia ugari egiten diren aireportuak izendatzeko anglizismoa— intermodal handi bat, begiztatu du aireportu horretan, AHTaren geltokiarekin eta itsas portuarekin lotua.

Eusko Jaurlaritzak ukatu egin du birmoldaketak hiritartze prozesua bizkortuko duenik: "*Berrikusketak* espresuki dio nekazaritzarako guneentzako desiragarriena dela egungo erabilera mantentzea". Horrez gain, Alfonso Sanzen azaldu du birmoldaketak ez duela lehendik ez zegoen azpiegitura handirik egitea proposatzen, egungoen "funtzionaltasuna eta integrazioa" hobetzea baizik.

LAAen birmoldaketa ez ezik, orain arteko aplikazioa ere auzitan jarri dute askok, sortu ziren helburuen justu kontrakorako erabili direla diote. Dani Maeztu ingurumen gaitan adituak eta Aralarreko kideak kritika gogorra egin dio orain arteko artezpideen garapenari. Bere esanetan LAAk "txinerazko *Kixote* bat edukitzea bezala dira". Maeztuk dio itxaropena zutela LAAekin nekazal guneak mantentzeko estrategiak landuko zirela: "Baina gai horiek erregulatu beharko litzuketen plan sektorialeak ez dute argirik ikusi. Hori beharrean, LAAek balio izan dute egungo garapen eredu elikatzen duten aktibitateak babesteko".

## Zein da alternatiba?

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) LAAen birmoldaketaren alternatiba idatzi du ([www.egk.org/argitalpenak/helbidean](http://www.egk.org/argitalpenak/helbidean)). EGK erakunde publikoan parte hartzen dute arlo ezberdinetako 55 elkarte, sindikatu eta erakundek. Ordezko dokumentuak honako galderari erantzuna eman nahi izan dio: "Zer eratako garapena nahi dugu?". Hona zehaztutako gai batzuk:

- **Ekoizpena:** Produktuen banaketa kanalak ahalik eta laburrena izan behar du, arrasto ekologikoa txikitzeko. Garraio azpiegiturretan tokiko biztanleen beharrak kontuan eduki eta garraio kolektiboa bultzatu. Hondakinak atez ate bildu, erraustegien beharrik ez izateko.
- **Etxebizitza:** Etxebizitza hutsak mobilizatu eta alokairu soziala bultzatu. Etxebizitzaren eraberritzea eta iraunkortasuna bermatu, hirigintza jasangarri eta integratzailea sustatu.
- **Industria:** Industria ekoizpen-sarea lurralde osoan modu orekatuan dentsifikatu behar da.
- **Energia:** Kontsumoa gutxitu eta eraginkortasuna handitu. Energia garbiak erabili.
- **Nekazaritza:** Elikadura subiranotasunaren alde egin. Azpiegitura komunak sortu. Herri-lurren arautze zehatzagoa. Transgenikoen kontrako borroka.
- **Giza eta kultura garapena:** Demokrazia parte-hartzailea sustatu. Genero ikuspegia eduki. Pertsonen oinarriko beharrak asebetu.
- **Gizarte-ardura:** *Dumping* sozial, ekonomiko eta ekologikoa alde batera utzi. Ertura edo desazkundearekin balioa eta zoriontasuna sortu, materia eta energia gutxiago erabiliz.

### Nola egin da parte-hartzea?

LAAen birmoldaketa instituzioen artean ezagutarazi du Jauralaritzak: Lurralde Politikarako Aholku Batzordean, Adituen Foroan, Udal Foroan... Oraingoz, artezpideen birmoldaketa ezagutzeko aukera ireki bakarra joan den urtean Bilbon egindako *Euskal Hiria* kongresua izan zen. Herritarren parte-hartze eskasa oso kritikatu izan da birmoldaketa horren kontra daudenen aldetik. Dena den, Lurralde Plangintzarako sailak esan du prozesua oraindik ez dela hasi eta herritarren parte-hartzea oraindik ez dela ireki, "hori bere momentuan egingo da" dio Alfonso Sanz zuzendariak, eta horretarako "gaur egungo lan tresna berriak" erabiliko direla gaineratu du.

Artezpideen *Berrikusketa* osatu aurretik, Ingurumen sailak txosten bana eskatu zien bost adituri, LAAen bilakaera eta balorazioa jakiteko. Txosten horiek *Berrikusketa* egiteko kontuan hartu zirela dio Jauralaritzak. Aditu guztiak

bat datoz esatean LAAk garrantzi handia dutela lurralde politika aurrera eramateko, eta birmoldatu beharra daudela. Dena den, zorrotzago ageri dira txostenok zenbait konturekin. Esaterako, Jon Leonardo soziologia katedradunaren arabera nekazal guneak babesteko arauak izkin egin izan zaie orain arte: "Modu horretan, gure nekazal herriak *standing* altuko lotarako gune bihurtu dira". Jose Allende EHUKo irakasleak ere nekazaritzarako lurrak berreskuratu beharraz hitz egiten du, eta horrez gain, "produktzio lokala, kontsumo lokala" maximari jarraitu behar zaiola dio.

LAAk ez dira "aldatu", baizik eta "birmoldatu". Ondorioz, eman beharreko pausoak askoz sinpleagoak dira: behin moldatu beharreko puntuak definituta, eta Gobernu Kontseilutik pasa ondoren, dekretu bidez onartuko da. Lurralde Plangintza sailak astekari honi azaldu dioenez urtebete inguru igaro liteke tramitazio guztia burutu arte. ■



## Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:

### GAUEKOAK

- Ikastarook urriaren 15ean hasiko dira:  
Gitarra elektrikoa, baxua, bateria,  
Flamenko dantza, egin ezazu zure arropa,  
Street dance-a.

### UDAL LIBURUTEGI SAREA

- **ARANA**  
**Kakaitia ni? Bai, zera!** Ipuin kontalaria  
Urriak 27, 18:00-19:00. Adina: 8-12
- **ARRIAGA**  
**Bi azeritxo estu eta larri.** Ipuin kontalaria  
Urriak 27, 18:00-18:45. Adina: 4-8
- **LAKUA**  
**Beldurrez lehertzen.** Ipuin kontalaria  
Urriak 28, 18:00-19:00. Adina: 7-10
- **EUROPA KIROLDEGIA**  
Liburutegien eguna  
Liburuen trukea, musika, umeentzako lantegiak...  
Urriak 23 eta 24

### TXAPELDUNEN SAIOA

- Bertsozale elkarteak antolatua  
**Aurkezlea:** Idoia Beitia  
**Bertsolariak:** Julio Soto, Amets Arzallus, Igor Elortza, Aitor Mendiluze, Oihane Perea eta Maialen Lujanbio.  
Urriak 14, 20:00. Jimmy Jazz aretoa

### EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

- **Programa arrunta**  
- Herritarrentzat
- **Programa berezia**  
- Aisialdiko begiraleentzat  
- Eskola kiroleko entrenatzaile edo begiraleentzat  
- Aurrekoetarako ikasten ari direnentzat  
- Gurasoentzat  
- Merkatarientzat (Merkataritza eta Industria Ganberaren bidez)

### MINTZALAGUNA

Euskara ikasten ari bazara, aspaldian ikasi bazenuen eta ez duzu norekin hitz egin... Hona hemen aukera ezin hobea: Mintzalaguna. Iaz Gasteizen 300 lagun baino gehiagok parte hartu zuten.

#### Urritik aurrera, animatuko al zara?

Baldintza bakarra, 6. urratsetik gorako maila izatea. Bestalde, mintzalaguntzaile aritzeko aukera ere baduzu.

Tel. 692 730 444

[mintzalaguna@geugasteiz.com](mailto:mintzalaguna@geugasteiz.com)

**MAITE DUZUN HURA,  
EUSKARAZ!**



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Pablo Sotés

NUPeko Hizkuntza Plangintza Arloko zuzendaria

## «Erraztasun gehiagorekin, euskarazko matrikulazioa asko handitu da»

Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta euskararen bertako egoera ederki ezagutzen ditu. Psikologian doktore, 1990. urtetik irakasten du NUPen, Irakasle Eskolan. 2007tik Hizkuntza Plangintza Arloko zuzendaria da.

GONTZAL AGOTE

Argazkiak: Josu Santesteban

Ikasturte berriak aldaketa handiak ekarri ditu Nafarroako Unibertsitate Publikora, besteak beste gradu berrietan 72 irakasgai eskaini baitira euskaraz. Zer dela eta eman du NUPek pauso hori?

Azken urteotan bidea prestatzen joan gara desagertzeaz dauden ikasgaiekin, 2010-2011 ikasturtean euskaraz eskaintza sendoa egiteko. Europar Unibertsitate Eremuari egokitutako ikasketetan eskaintza hori nabarmen handitu da. Proposatzen dena berria da, graduak daude, eta hasieran irakasgai asko komunak dira. Horrek errazten digu bidea, orain zazpi talde gaztelaniaz eta bi euskaraz eskaini ditza-kegulako, gradu desberdinetatik etorritako ikasleekin.

Zuek espero baino hobeto joan da matrikulazioa, euskaraz eskaini dituzuen gradu berri horietan?

Oraindik ez ditugu behin betiko datuak, bigarren seihilekoan gertatzen dena ikusi behar da, baina datuak oso pozgarriak dira. Kasu gehienetan espero baino gehiago izan dira euskaraz matrikulatu diren ikasleak. Betiere, jakinda gradu berriak direla, eta unibertsitate honetan erreferente nagusia ez dela euskara.



“Oraingo eredia [Boloniakoa] askoz ere malguagoa da eta euskara sartzeko aukera handiagoa dago”.

Dena den, NUPen dauden ikasle euskaldunen eta euskaraz ikasten dutenen arteko aldea oraindik ere handi samarra da.

Bai, hasieratik hori kezka handia izan dugu. Euskaraz ikasteko eskaintza bazegoen, hainbat irakasgaitan behintzat, eta hala ere ikasle euskaldun asko ez ziren horietan apuntatzen. Gaur unibertsitatera

etortzen direnen %20 inguru euskalduna da, baina gero ez datoz bat dakitenen eta euskaraz matrikulatzen direnen kopuruak.

Horretarako hainbat arrazoi daude. Zenbaitetan beldurra izaten dute, irakasgaia euskaraz hasi eta gero gaztelaniaz segitu behar badute. Bestetik, antolakuntzarekin lotutako arazoak izan dira, ordutegiak

eta abarrekoak. Azken horiek aldatzeko proposamen zehatzak egin genizkien ikastegietako arduradunei. Hiru urte hauetan, ikusi dugu horrek isla izan duela matrikula datuetan, alde hori gero eta txikiagoa da.

#### Joera aldatu dela uste duzu?

Dudarik gabe. Erraztasun gehiago izan dutenean, kopurua asko handitu da. Orain, denborari begira, espazioari begira, antolakuntza zehatza dago eta hori nabaritu da.

#### Hortaz, Boloniak ezarritako ereduak onura ekarri dio euskaraz ikasteko aukerari?

Bai, bai hemen, baita beste unibertsitateetan ere. Azken urteotan hainbat lekutan entzun izan ditugu Boloniaren inguruko kezkak, "euskarak galduko du" eta halakoak, baina guk kontrakoa esaten genuen. Boloniak antolakuntza berria, iraultza txikia, ekarri du unibertsitatera. Horri esker NUPen sistema aldatu dugu; besteak beste, euskarari dagokionez. Aldaketa hori bereziki hasierako ikasturtetako irakasgaietan ikusi da, komunak diren horietan. Oraingo ereduak askoz ere malguagoa da eta euskara sartzeko aukera handiagoa dago. Malgutasun pixka bat uzten digutenean, guk zirrikitu hori aprobetxatzen dugu.

#### Malgutasuna ez ezik, borondatea behar da. Gaur egun NUPen egon badago euskara normalizatzearen aldeko borondate hori?

Bai, batez ere D ereduak ikasi duten ikasleen jarraipena ziurtatzeko, gutxienez gaur egun hori ziurtatu nahi du errektoretza taldeak. Esaten badugu ikasleek eleanitzak izan behar dutela, unibertsitatean bertan eleaniztasuna landu behar dugu. Orain arte gehienbat gaztelania hutsez irakasten zen eta orain aukera hori zabaltzen da. Ez agian

nahiko genukeena, baina horretarako urratsak ematen ari gara.

#### Eskaintza akademikoaz gain, urrats horiek beste alorretan ere ematen ari dira?

Bai, jakina. Irakaskuntzarekin batera, unibertsitatean ere kudeaketa dago eta hor ere hainbat urrats



eman ditugu azken hiru urteotan. Esate baterako, aurreko lehen aldiz ikasleek matrikula euskaraz egiteko aukera izan dute. Horrez gain, komunikazio guztia euskaraz egin daiteke ikasle eta irakasle euskaldunen artean. NUPeko langile euskaldunak identifikatuta daude, nolabait ibilbide euskalduna ziurtatu dugu eguneroko zereginetan. Azkenik, Kultur Jardueretan ere orain hainbat ikastaro eskaintzen dira euskaraz.

#### Hortaz, zuzendari lanetan hasi zinetik hona egindako lanaren balorazioa positiboa al da?

NUPen 2007tik aurrera planifikatzen hasi da euskara eta lan horrek fruitua eman du. Hori begi-bistakoa da, eta gure asmoa ildo horretatik jarraitzea da. Uzten badigute, behintzat.

Hala ere, ezinezkoa dirudi denak asetetzea. Hainbatentzat gutxitxo da egiten dena eta beste batzuek, berriz, errezeloz hartuko dute ematen

den pausorik txikiena ere. Zaila al da bi mutur horien artean mugitzea?

Nahiko konplexua da, zenbait kasutan gure lana ongi ulertu ez delako. Bi polo daude eta hasiera ez zen batere erraza izan. Jarrera batzuk ulertzen ditut, nik neuk ere bizi izan nituelako beste garai batzuk, ia ezer egin ez zenekoa. Baina oraingoan denborarekin ikusten joan da gauzak egin egiten direla.

#### Eskaria handituko balu eredu guztiz elebidunera joko luke NUPek?

Nik esango nuke jada badela elebiduna eskaintzen ari garena, eta handitu baino gehiago egokitzen joango da. Horrek planifikazioa eskatzen du eta lan hori egin dugu. Argi dugu gure eskaintzan eleaniztasunera jo nahi dugula, gaztelania, euskara eta ingelesarekin. Hau guztia Euskararen Plan Estrategikotik dator, hori onartuta dago, eta inork ezin du zalantzan jarri.

#### Hizkuntza Plangintzak 2009ra arteko epemuga zuen, hortaz iraungi da. Zein egoeratan dago Plangintza berria?

Aurrekontuekin bezala, luzapenetan segitzen dugu. Unibertsitateak ere badu hiru urteko plana, Plan Estrategikoa. Kontseiluak horren luzapena onartu zuen, baita Euskararen Plan Estrategikoarena ere. Orain hurrengo urteko Plan Estrategikoa lantzen ari gara eta horren barruan egongo da Hizkuntza Plangintza, 2013ra bitartekoa izango dena.

#### Zeintzuk dira aurrera begira ikusten dituzun erronkak?

Batez ere eskaintza sendotu, eta ikusgarri egiten segitzea. Horretarako urratsak eman ditugu, baina gehiago eman behar ditugu. Bestetik, kudeaketan zirkuitu elebidunak sortzea. Eta etorkizunean gustura hartuko nuke graduondoko ikasketetan ere euskararen presentzia izatea. ■

Babeslea: HABE

**HADE**  
Helduen Alfabetatze  
Berreuskalduntze Erakundea

105 euskaltegi  
1.500 irakasle  
39.000 ikasle

**munduoro**  
euskaraz

www.habe.euskadi.net  
www.euskara.euskadi.net

## Haurrak euskaraz ezin erregistratu

EZ DA GAURKO KONTUA. Espainiako Estatuko Erregistroen Legeak 2005ean aitortu zuen haurrak Bake Epaitegian euskaraz erregistratzeko eskubidea. Beste gauza bat da praktikan zer gertatzen den. Eusko Jaurleritzako Justizia Sailaren eta Espainiako Estatuko Justizia Ministerioaren arteko hitzarmenari esker Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hamalau barruti judizialetako herri buruetan haurrak euskaraz erregistratzeko aukera dago. Kontua da hitzarmen horrek ez duela jarraipenik izan eta beraz ez da zabaldu beste herrietara,

esate baterako Usurbilera. Gipuzkoako herri horretako hiru amek prentsaurrekoa eman berri dute haurrak herriko Bake Epaitegian euskaraz erregistratu ezinik geratu direlako.

## Lazarraga sariak enpresentzako

ARABAKO FORU ALDUNDIAK Lazarraga sariak banatu ditu euskara normalizatzen lan egin duten enpresen artean. Ondokoak izan dira saria jaso dutenak: Mendi Optika, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak, Guardiako Launa Upategiak, JEZ Sistemas Ferroviarios eta Skunfunk denda.

## Zaldiko Maldikoren sariak

IRUÑEKO KULTUR ELKARTEAK Lamien Urrezko Orrazia Nafarroako Gobernuak diru-laguntzarik gabe utzi dituen euskarazko hedabideei eman die eta Asto Masto saria berriz, Xabier Azanza Euskarabideko zuzendariari eman diote.

## BAHEA

Berria egunkarian Josu Gotzon Landetaren artikulua eta hari Luis Astorkiak erantzundakoa argitaratu dira duela gutxi. Euskara irakasteko titulu eta agiriez ari dira. Benito Fizek bien hariari tira die, eta hona [Karrajua.org](http://Karrajua.org)-eko entresaka: “Euskaltegiaren irakasle jarduteko –homologazioa izateko hobeto esanda–, unibertsitate-titulua eta euskara titulua behar dira. Diplomatura mailako unibertsitate-titulua eta EGA edo 3. mailaren pareko euskara-titulua –4. mailaren eskakizuna noraino hasi den ez nuke jakingo esaten–. Horrela da, bai.

Baina non karajo ikasten da jende helduari euskara irakasten? Nork eskaintzen du prestakuntza hori? Hizkuntza aztertzen, ikertzen eta hari ebakuntzak egiten ikasteko lekuak egongo dira akaso, baina, auto baten tripak ezagutzeak gidatzeko baimenik ematen ez duen moduan, hizkuntzaren ezagutzak ez du zertan eman beste inori hura ikastarazteko dohairik”.

Deia-n Ana de Castro Bilboko Udaleko Euskara zinegotziak esanak: “Datuek Bilbon euskarak izan duen garapen garrantzitsua azaltzen dute. 53.000 euskaldunetik 83.000ra igaro gara, eta horri ikasten ari direnak gehitu behar zaizkio. Esaten ari gara bilbotarren %48ak euskara ezagutzen duela. Baina oztopo bat daukagu, ezagutza eta hizkuntzaren erabilera ez daude orekatuta”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## TALAIAN

### I-29: doikuntzen kontrako euromanifestazioa

Irailaren 29an, asteazkenarekin, kalitatezko enpleguaren eta hazkunde ekonomikoaren aldeko europar manifestazioa egin da Bruse-lan. Manifestazioa joan den ekainean deitu zuen Sindikatuen Europar Konfederazioak (CES). Bere barruan daude ELA sindikatu abertzalea eta CCOO eta UGT sindikatu espainiarrak. Zenbait hedabidetan, data hau erabili izan da CCOO eta UGT sindikatuen alde egiteko, esanez mobilizazio horrek greba orokorra zuela oinarri Europa osoan; baina ez da egia. European, aurreko hilabeteetan hainbat greba orokor egin da, doikuntza neurriekin langileen eskubideek izango dituzten murrizketen kontra egiteko –Grezian, Irlandan, Errumanian, Frantzia, Italia...–. Euskal Herrian ere lau greba orokor egin dira hamahiru hilabeteetan –bi Iparraldean, azkena joan den astean, eta beste bi Hegoaldean.

Irailaren 29ko euromanifestazio handia beste mobilizazio batzuekin lagundu dute sindikatuek Europa osoan. ELAk, CES-en parte denez, jadanik iragarria zuen euromanifestazioan parte hartuko zuela. Pasatu dena da, Espainiako Estatuan CCOO eta UGT sindikatuek edozer greba orokor atzeratzen ibili direla, elkarriketa sozialaren argudioarekin, eta irailaren 29ko datan aitzakia paregabea aurkitu zuten Espainiako Estatuan greba orokorra deitzeko, konbikzio handirik gabe bazen ere. Deialdi horren emaitza –artikulu hau data hori baino bi egun lehenago idazten ari gara– nahiko mugatua izango da Espainiako Estatuan, baina Hego Euskal Herrian, gehiengo sindikal abertzaleak parte hartzen ez badu, deialdiak porrota bermaturik dauka.

Juan Mari Arregi

## Gernika eta Foronda ez ziren hain urruti

**ELUR PILOTAK** handitzen jarraitzen du eta bake prozesu berri hau ere itxura hartzen ari da apurka, hori bai bakoitza bere rolean murgilduta, baina hurbilpen urratsak emanez. Salbu eta PSOEren eta PPren kasuan, jakina. Baina bloke honetan ere, lehenago edo geroago, sortuko dira pitzadurak. Honek guztiak duen itxurarekin, oso gaitza da Jose Luis Rodriguez Zapateroren zapadoreak Moncloan gelditu daudela irudikatzea. Hori bai, denak adierazten du ez dela mugimendu niminoena gertatuko ETak armak uzteko erabateko konpromisoa hartu arte.

Hori litzateke logikoena, azken 30 urteetan ETarekin behin eta berriro hitz egin duen PSOEek berak borobiltzea jokaldia, ETaren historiaren amaiera poltsikoratuz eta Espainian behar bezala salduz. Hori da, seguruenik, 2012ko Espainiako hauteskunde orokorrekin begira duen heldu leku sendoenetakoa. Hori da logikoena bai, bestelakoa da nola eragingo duen egungo PSE-PPren tandemak logika horretan.

**GERNIKAKO ITUNEAN** ezer berririk ez dagoela esatea –EAJk egin duen bezala– ez da serioa eta egiazkoa ere ez. *Zutik Euskal Herria*-k argi adierazten du borroka armatuareki-

koak. HBk eta Batasunak eskatu izan dizkiote su-etenak ETari –beti ere ahots txikiarekin–, baina behin ere ez ondoren etorri behar duena desagerpena dela azpimarratuz: “jarduera armatua behin betiko uzteko borondatearen erakusle gisa”.

Eman beharreko urrats garrantzitsua da Gernikako Ituna, ETak nazioarteko eragileei baieztokarekin erantzuteko ezinbestekoa. Hori izango baita prozesu honetako hurrengo urrats handia. Ordura arte, ongi etorriak izango dira emango diren pauso guztiak, baina euskal gizartea orain Bruselako Adierazpenari luzatu beharreko baieztokaren zain dago.

**ETA-K EZ DU** argi hitz egiten oraindik, baina bai gero eta argiago. Irailko hiru agerpen publiko garrantzitsuetan –bi agiriak eta elkarriketa– bada eboluziorik, bai hizkuntzan eta

**ETA ‘Zutik Euskal Herria’ agiriari buruz: “ETak ez luke bere egingo hitzez hitz, baina ados gaude ebazpen horretatik eratortzen denarekin”**

baita edukietan ere. Eta esango nuke elkarriketan ETak garai batean Elkarrik ere maiz erabiltzen zuen “anbiguetate eraikitzaile” hori darabilela, bere ohiko mezuei halako esaldiak gehituz: “Protagonismoa aldaketa bultzatzen ari diren eragile politikoena da”. Edo *Zutik Euskal Herria*-ri buruz dioena, eta agian elkarriketako esaldirik garrantzitsuenak dena: “ETak ez luke bere egingo hitzez hitz, baina ados gaude ebazpen horretatik eratortzen denarekin”. Eta esaldi honen indarra kontrajartzeko beste asko badaude ere –baldintzei buruzkoak adibidez– hori bera bakarrik itzela da, denok baitakigu zein den *Zutik Euskal Herria* ebazpenaren mezu nagusia: independentzia bide politiko eta demokratikoetatik. Beraz...

**EAJ ALDIZ**, argi mintzo da *Ados* agiriaren bidez eta, funtsean, oinarrikoena dena aipatzen du: ETA desager dadila, politikaren ateak denontzat ireki daitezela, indar politiko guztien arteko akordioa eta erabaki eskubidearekiko begirunea. Taularatzeak eta interesak oso desberdinak izan arren, gatazka honen ebazpenerako mamian, Gernika eta Foronda gertu izan dira asteburu honetan.

**Zure itzulpen eta argitalpen lanetarako zerbitzu integrala**

- ✓ Hizkuntz eskaintza zabala
- ✓ Argitalpen lanak
- ✓ Zerbitzu integrala: itzulpenak, zuzenketak, diseinua, maketazkoa, inprimaketa...

finès  
french  
euskara  
englandi  
español  
catalonian  
suomi  
basc  
català  
finnois  
francès  
anglès  
catalan  
français  
castellano  
finnish  
inglés  
baski  
catalán

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L.

Narkis Balentziaga, 2. 20749 Arroa (Gipuzkoa) Tel.: 943 148 306 Faxa: 943 897 380  
bakun@bakun-itzulpenak.net www.bakun-itzulpenak.net

# Lapiroren kantak tripak nahasi dizkio Paul Biyari

2008ko apiriletik Douala (Kamerun) inguruko espetxe batean dago preso Lapiro de Mbanga kantaria. Amnesty Internationalek, PEN klubak eta beste hainbat erakundek eskatu dute haren libratzea. 1982tik Kamerungo presidente dagoen Paul Biyari aurre egin zion kantuekin eta asko daude kezkatuta Lapiroren biziagatik.

CONSTITUTION CONSTIPÉE - LAPIRO idatzi Interneteko bilatzailean eta kanta entzuteko aukera dago. Hitzak ez dira errezegi ulertzen, frantses, ingeles eta duala hizkuntzez osatuta-ko *pidgina* baitarabil musikariak.

*Cosntitution Constipée* (Konstituzioa enpatxaturik euskaraz) plazara-tu zuen Lapiro de Mbanga 2008 hasieran Kamerungo Paul Biyak jakinarazi zuenean asmoa zuela Konstituzioan aldaketak sartzeko, hainbeste urteren ondoren berriro presidente izaten jarraitu asmoz. Lapiroren kantuak aipatzen ditu preso dauden jendeak, aitona gaixo dagoela dio... agure zaharra kendu behar dela agintetik.

Gero 2008ko otsailean kalean lis-karrak sortu ziren konstituzio alda-ketaren kontra, istiluetan estatuaren zenbait bulego eta Maersk multina-zional danimarkarraren platano soroak suntsitu zituzten, eta gertaki-zun horietan nahastuta egotea ego-tzita arrestatu zuten Lapiro.

Izen artistikoa sortzeko Lambo, Pierre eta Roger izenen akronimoa omen da. De Mbanga, berriz, sor-terria oroitarazten du, Mbanga eskualdea. Gaur 54 urte dauzkan gizona Europar ezagunak egin diren beste kantari afrikarrekin aritua da, hala nola Manu Dibango eta beste-rekin. Estatuaren errepresioa ere ez du gaur goizean ezagutu, 1985ean

itzuli baitzen Kamerunera ordura arte babestuta egon zen Nigeria eta Gabonetik bueltan.

Adierazpen askatasunaz eta zen-tsuraz okupatzen den *Index on Cen-sorship* gunean hau diote Lapiroz: “Paul Biya presidentearantzako eten gabeko arantza izan da. Bi hamarka-daz kantariak abesti asko idatzi ditu herrialdeko errealtate sozio-ekono-mikoa aipatzen duten hitz zorrotzez. Ingelesa, frantsesa eta duala naha-sen ditu egunero ikusten dituen injustiziaz salatzeke. Hizkera honi –iruditan aberatsa da eta itzultzen zaila– *Mboko talk* deitzen diote. Lapi-ro idolo bihurtu da Kamerungo autobus geltokietan eta txabolategie-tan aurki daitezkeen langile zapaldu eta ahaztuentzat. Haren kantak dira demokraziaren aldeko 1980 eta 1990eko hamarkadetako borroken oihartzuna”.

YouTuben erraz eskura daitezke Lapiroren famatuena: *No Make Erreur, Pas argent no love, Kop Nie, Mimba We, Na You...* Beti zentsurak ezarritako marra ukitu edo zanpa-tzen duten kanta Kamerunen arra-kastatsuak. Baina *Constitution Consti-pée*-rekin Paul Biya presidenteak ulertu bide du masen izarra urrunegi joan dela. Umorea eta haserre-a nahastuz 28 urtez buruzagi goren dagoenari dimititzeko eskatzen dio, *pacho* (agurea) *daya* (akituta) dagoela

Issa Nyaphaga-k sinatutako argazki honetan katez lotuta ageri da Lapiro de Mbanga kan-taria auzitegiko bidean. Ez dugu jakin katea-tuta joate hori atxilotuak sinbolikoki antolatu duen eszena ote den ala –Lapiroren aurpe-giak adierazten duen moduan– benetan horrela estekaturik daramaten epaitegira. Paul Biya 28 urtez Kamerungo presidente izan denak postuan jarraitzeko Konstituzioa aldatu zuenean sortutako istiluengatik espe-txeratu zuten eta preso dago gaur oraindik. Bitartean, Paul Biyak indar osoz segitzen du Frantziaren eta Amerikako Estatu Batuen laguntzarekin. Urtean hainbatean behin Sui-tzara etortzea maite du, lanerako bakea behar omen duela eta, hamabost egun edo gehiagoko oporraldietarako. 2009an Bretai-nako La Baule herriko luxuzko hotel bateko 48 gela hartu zituen beretzako eta sekitoa-rentzako, egun bakoitzak batez beste 40.000 euro kosta zuen.

eta beste. Kaleko istiluak gertatu eta hilabetera espetxean sartu zuten, 2008ko irailean hiru urteko espetxe zigorrera kondenatu eta gainera beste 18 hilabete erantsi zizkieten, 546.000 franko FCFAko (830 euro inguru) isuna ez ordaintzeagatik.

Lapiro de Mbangaen alde ez da Kamerungo preso politiko bakarra. Harekin ziega berean egon da joan den ekaina arte, 50 atxilotuen artean, beste preso famatu bat, *La Détente Libre* astekariko zuzendari Lewis Mdjo, hau ere hiru urtera kondenatua Paul Biya iraintzeagatik.

## Katilu bat arto, beste bat arroz

*Index on Censorship* aldizkari elektro-nikoak berrikitan Lapiro aipatu ahal izan du... telefonoz harekin hitz egi-tea lortu duelako. Bi alditan egunez hitz egin zuen, gainera.

“Normalean –espikatu du Lapi-rok– ez daukat kanpoko munduare-kin harremanik. Telefonoak legearen kontrakoak dira hemen. Zurekin solasean ari banaiz lapur arruntek bezala jokutzen dugulako da. Espe-txean klase guztietako trafikoak mugitzen dira, telefonoarena barne. Pagatzen baduzu, guardiak ez ikusia eginen du. Kamerunen edozer erosi dezakezu diruz”.

Gizonak kontaktu dio *Index*eko Daniel Browni bere buruagatik bel-durrik ez duela, beldurtia izan balitz



ez zela kantuan hasiko gaztetan, baina bai dago emazteaz eta sei seme-alabez kezkatuta.

Emaztea bi edo hiru egunez behin etortzen ei zaio bisitan, bost orduko bidaia eginik. Hark ekartzen dizkio albisteak, janaria ere bai. Bertako elikadura gosez akabatzenkoa baita: eguerdian katilukada bat arto egosi eta arratsaldean beste katilukada bat arroz. Besterik ez. “Ez da aski bizirauteko, hemen ikusi dut nik jendea gosez hiltzen, Kamerungo espetxeetan egunero jazotzen da.

Epaiketan ondasunak kendu ezin zizkiotenez, Lapiroren emazteak laguntzeko modua egiten du iaz Freedom to Create Imprisoned Artist saria eman ziotelako, 25.000 dolar daramatzana. Baina espetxetik

bizirik ateratzen bada berriro atzerri-ratu beharko duela uste du kantariak. Kontatu duenez, bi alditan saiatu dira bera hiltzen Kamerungo agintariek bidalitako poliziak eta militar-rak, eta aurrerantzean Kamerungo karriketan ez luke aukerarik izango bizirik irauteko.

Aurrena, ordea, presondegitik ateratzea erdietsi behar du. Hasteko, baldintzapeko askatasuna ukatu diote. Ukatu dioten bezala, erantzunik eman gabe utzita, kasua berriz aztertzeko aukera. Eta preso arruntagoen artean ezagun samarren bat ere ikusi du ziegan hiltzen.

*Cameroun Express* egunkariko zuzendari Bibi Ngota apirilaren 22an aurkitu zuten hilotz. Agintariek esan zuten ihesak hil zuela. “Baina

gaur ez zara ihesaz hiltzen –kontestatzen du Lapirok– gaur badituzu retrobiralak bizirik irauteko. Gizon hori hil zen hemengo osasun baldintzengatik. Ospitalera eramatea ukatu zioten, niri ukatu didaten bezala. Baina Ngota ez zuen bere lana besterik egin. Ez gaude urrun asasinatze politikotik”.

Eritasunei dagokienez, joan den udaberrian tifusa harrapatu zuen eta ospitalera eraman nahi izan ez zutelarik Louise emazteak ekarritako antibiotikoekin atera zen aurrera. Hezurretako minaz ere kexu da.

Youtuben Lapiroz aurki daitezkeen bide ugarien artean badira elkarriketak ere. Horietako batean ileak ondo urdindutako kantari helduak kartzelatik dio: “Musikak batzuetan arma baten balioa du, jendeak horrekin egiten tiro, hitzekin, dantzarekin, doinuarekin”

1993ko urtarrilean Paris inguruko Trappe herrian jo zuen Lapiro de Mbangak *New Morning* salan. Bi saioetako bakoitzean 1.000 jendeaz goiti bildu omen zituen, nahiz eta handik kilometro gutxira Manu Dibango izarrak ere jo. Biharamunean, *L'Humanité* egunkari komunistak kronika laudoriorz josia eskaini zion: “Kantari-gitarista matxinoa Afrikan bakarretakoa da album baten 150.000 ale saltzen. Hitz haserretuak erritmo izugarri erakargarriekin dantzarazteko artearen jabe da. Kamerungo burgesia tarteka ohartzen da, etsirik, ezin dituela harrapatu haren hizkeraren ñabardurak, herri xehea zoriontsu egiten dutenak”.

Azkenean Kamerungo burgesak ez dira hain zozoak izan: kaiolan sartu eta fini txoriaren alaitasunak. ■





**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

**zuri begira**

Josemari Velez de Mendizabal

## Desgraciada España

**H**orrela idatzi zuen Jose de Artetxek bere *El abrazo de los muertos* liburuan, gerra madarikatu hura alde batean zein bestean uzten ari zen galera izugarria zela-eta. Eta oihu lazgarriak bere intentsitate osoan harra-patzen gaitu uneoro, gerra zibilaren garroak oraindik ere bizi-bizirik daudela gogorarazten digularik. Ala inork uste al du, desgrazia hark ezer konpondu zue-nik?

Higuina diet, estatuaren substratutik eraikitako nazionalismoei. Besteoi, hau da, nazkagarri horiei aurre egiteko sortu-takoei sinpatia eduki niezaieke (diet, kasu askotan). Kontra-erreakzio guztiz logiko-an jaio dira, nazionalismo zanpatzailearen aurkako erantzun gisa. Baina ez naiz eze-lako tranpan eroriko, ez horixe, jakin bai-takit bigarrenetan ere deitoragarrietakoak ditugula, eta hitzen dialektikatik urrun dabiltzanak, estatuak bezain nazionalis-mo baztertzaileko aktibistak dira.

Identitatea borondatezko mugaketa den bezalatsu, aberria ere ezin zaio inori indarrez ezarri. Nork berea jasotzen du bere baitan eta elkarren arteko kidesasu-nak –afinitateak– mugiarazten ditu batzuk eta besteak helburu konkretutara-ko ahaleginean. Nongo zuztarrak izango ditu hogeit urte barruko EAEko lehenda-kariak? Lehendakaritzarako bere burua aurkezten duenean, pertenezia suposa-tuko zaio, ziurrenik. Baina batek daki! Izan beharko al ditu, aitzitik, zortzi euskal abizenak? Hartuko al du euskara euskal ikurtzat? Kristau postulatueta hezia izango al dugu? Zein nolako aberriaz mintzatuko da, beraz, lehendakari hori?

Urkullu eta Lopezen identitateak ez dira berdinak. Biek bat egin dezakete pertenezia-aren kontzeptuarekin, baina ez naiz ausartuko esatera –ez dagokidalako, hori bakoitzaren hautua baita– nork duen bizkaitar identitate sendoena. Eta zuhur jokatu dut, ez baitut euskal identitate ida-tzi, bizkaitarra baizik. Baina identitatea, derrigorrez erlazionatu behar dugu estatuarekin? Inondik ere ez! Murtziako hiri-tar bat eta aramaioar bat hurbilago egon daitezke identitate amankomunetik, Ara-



DANI BLANCO

maion bizi diren bi lagun baino. Perte-nentziaren kasuan, Aramaio eta Murtzia-koa, bakoitza bere alderago lerratuko zen arren... gerta liteke identitate-sentimendu berdinek apaintzea haien espiritua. Ara-maioko kaletarrak, aldiz, pertenezia hurbil batean bizi litezke... identitateaz zeharo diferente izan arren. Beraz?

Aberria sentimenduz beterik daukat. Nire haurtzaroa da, lehen abestiak, lehen paisaiak... Nire gaztaroa ere, bere ilusio eta etsipenekin; eta heldu aroko atzera begirada malenkoniatsuak. Horiek denek eta gehiagok osatzen dute nire aberri per-tsonala, lagun, senitarte, etsai eta bizipe-netako lekuko hurbil guztiekin. Aberria hatz puntetan antzematen dut; nire oro-i-menean dago, usaimenean eta bihotzean ere bai. Baina ezin dut ukitu, ez dakit nola azaldu bere itxura. Nire aberria hizkuntza desberdinetan zizelkatu da, jatorri desber-dinetako giza norbanakoek inguratuta. Eta aldatzen doa uneoro, bere mugak etengabe mugituz.



Urkullu eta Lopezen identitateak ez dira berdinak.


Biek bat egin dezakete pertenezia-aren kontzeptuarekin, baina ez naiz ausartuko esatera nork duen bizkaitar identitate sendoena. Eta zuhur jokatu dut, ez baitut euskal identitate idatzi, bizkaitarra baizik



Politikarekin zer ikusi gutxi duen abe-ri pertsonalari egokitu natzaio aurreko hitzekin, noski. Izan ere, aberriaren gai-neko kontzeptuak dituen arazoak zentzua politikari aplikatzen zaionean azaltzen dira. Eta hortxe hasten zaizkigu aieneak, ezin ulertuak, gorrotoak, pasioak... Politi-ka aurreko nire aberri pertsonala inori bat ere inportako ez zaion bitartean... sutza-rerra bota nazakete hari eitea ematen has-ten banaiz. ¡Desgraciada España! ■

ASTE HONETAKO

# zozketa



## Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elxalde Auzoa, 22  
Galdakao BIZKAIA

[www.andra-mari.com](http://www.andra-mari.com)

1



## Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat  
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza,1  
Donostia GIPUZKOA

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

2



## Esait

2 forro polar  
opari

Oiartzun GIPUZKOA

[www.esait.org](http://www.esait.org)

3



## Cool Circus More circus than ever

5 CD opari

Soraluze GIPUZKOA

[www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)

4



## Artez euskara zerbitzua

5 harpidedunentzat  
3 agenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.  
Bilbo BIZKAIA

[www.artez.net](http://www.artez.net)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2244. Argia)

### XARMA

- Joseba Ituarte Arkotxa (Ondarroa)

### AQUARIUM

- Bernardo Azpillaga Ariztimuño (Errezil)
- Orkatz Kultur Elkartea (Azpeitia)
- Sabina Arruabarrena Sukia (Donostia)
- Joseba Berriotxoa Alberdi (Zornotza)

### NAIROBITARRA

- Maialen Carpintero Navarro (Eraso)
- Iruñezar Aek Euskaltegia (Iruñea)

### EUSKAL MUSEOA

- Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)
- Isabel Razkin Lizarraga (Uhart-Arakil)
- Adunako Udal Liburutegia (Aduna)
- Galdakaoko Aek Euskaltegia (Galdakao)

### HOTSAK DANTZAN 2

- Ana M. Zubiarrementeria Olañeta (Eibar)
- Mayi Iza Agirre (Hondarribia)
- Igor Piñeiro Zabala (Getxo)
- Izaro Sudupe Altuna (Azkoitia)
- Jokin Ginea Kortajarena (Galdakao)


\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com) • [www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)

# **BIZKAIKO MEATZALDEAN JAZOTAKO GERTAKARIETAN GIROTURIKO ELEBERRI BIZIA**



Harrotasuna eta adorea, borborka

Miseriaren eta zapalkuntzaren aurkako borrokaren kontakizun ederra

Euskal langile mugimenduaren ernamuin izan zen meatzarien borrokaren historia

URRIAREN 1 ETIK AURRERA, ZURE KIOSKOAN **10,95 € + GARA** 